

KOIUNTURAZ

72. zkia. – 3. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	14
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	20
Lan merkatua.....	25
Prezioak, kostuak eta soldatak	31
Arlo publikoa.....	36
Finantza arloa	39
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	45
Ingurunerako aurreikuspenak	45
EAErako aurreikuspenak	52

LABURPENA

Sei hiruhilekoz jarraian urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jaso eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) barne produktu gordinak (BPG) tasa positiboak berreskuratu zituen 2010eko bigarren hiruhilekoan eta %0,5 hazi zen aurreko urteko epealdi beraren aldean. Emaitza horri esker, EAEko ekonomiak beste hazkunde aldi bati ekin dio eta aurrea hartzen dio espainiar ekonomiari, epealdi berean %-0,1eko tasa jaso zuelako, nahiz eta Europar Batasunaren aldean atzerapen garrantzitsua erakusten duen, azken lurralde horrek %2,0ko urte arteko balio harrigarria lortu duelako. Hiruhilabete arteko tasetan, EAEko ekonomiaren hazkundera hiru hamarrenekoa izan da. Beraz, dagoeneko hiru hiruhilabete kateatu ditu tasa positibotan, tasa horiek oso apalak izan diren arren. Horrek pentsarazten du datozen hiruhilekoetan mamituko den susperraldia oso astiro gertatuko dela.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.




Iturria: Eustat.

Gaur arte argitaratu den informaziotik eratortzen denez, munduko ekonomia aurtengo lehen hiruhilekoan lortu zuen balioaren zertxobait gaineretik egonkortzen ari da bere hazkunde

erritmoa. Oro har, garatutako ekonomiek munduko ekonomiari egiten dioten ekarpena areagotu dute eta garapen bidean dauden herrialdeek oso balio altuetan egonkortu dituzte beren hazkunde tasak. Beraz, munduko BPG %4,5 baino zertxobait gehiago hazten egon daiteke, krisiaren aurreko urteetan izan zuen erritmora (%5,0tik zertxobait gorago) hurbilduz.

Munduko ekonomia. BPGren bilakaera eta nazioarteko merkataritza.



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakuntzaren datuak erabiltuta.

Garatutako herrialdeen artean, AEBetako produktu gordinak lortu duen erritmoa (%3,0 urte arteko tasan) nabarmentzen da, azken lau urteko handiena baita. Emaiza on horretan kontsumo pribatuak eta inbertsioaren susperraldiak, bereziki ekipamenduan eta softwarean eginikoak, lagundu zuten. Aitzitik, Japoniak nabarmen moteldu zuen lehen hiruhilabeteko hazkunde tasa bizia eta %2,4an kokatu zuen bigarrenekoa, barne eskariaren ahultasunagatik eta kanpo arloaren ekarpen txikiagoagatik.

Zalantzarik gabe, bigarren hiruhilabeteko daturik harrigarriena Europako BPGk lortu zuen gehikuntza tasa sendoa izan da, urte arteko tasan %2,0 hazi baitzen, aurreko hiruhilabeteko balioa puntu bat baino gehiago handituz. Kontsumo pribatu biziago batek eta kapitaleko eraketa gordinaren suspertzeak, bereziki izakinen aldakuntzarenak, eman zioten hazkundeari bultzada hori. Aitzitik, kanpo arloak hamarrenen bat kendu zuen, euroa ahul zegoenez, esportazioak oso bizkor areagotu baziren ere. Hain zuzen ere, aurtengo lehen sei hilabeteetan

europar diruak bere balioaren %16 galdu zuen dolarraren aldean. Hala ere, joera horrek atzera egin du azken hilabeteetan eta euroa 1,30 dolarretatik gora kokatu da irailean.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Europar Batasuna 27	0,5	-4,2	-5,1	-4,3	-2,2	0,7	2,0
- EAE	1,3	-3,8	-4,3	-4,5	-3,1	-0,8	0,5
- Espainia	0,9	-3,7	-4,4	-3,9	-3,0	-1,3	-0,1
- Alemania	1,0	-4,7	-5,5	-4,4	-2,0	2,0	3,7
- Frantzia	0,2	-2,6	-3,1	-2,7	-0,5	1,2	1,7
- Italia	-1,3	-5,0	-6,2	-4,7	-2,8	0,5	1,3
- Erresuma Batua	-0,1	-4,9	-5,9	-5,4	-3,0	-0,3	1,7
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	0,0	-2,6	-4,1	-2,7	0,2	2,4	3,0
Japonia	-1,2	-5,2	-5,9	-4,8	-1,4	4,4	2,4
Txina	9,6	9,1	7,9	9,1	10,7	11,9	10,3
India	6,4	5,7	6,1	7,9	6,0	8,6	8,8
Errusia	5,6	-7,9	-10,9	-8,8	-3,0	3,3	4,5
Brasil	5,1	-0,2	-1,6	-1,2	4,3	9,0	8,8

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.


Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Garapen bidean dauden herrialde gehienek oso gehikuntza tasa handiak lortu zituzten, baina Txinan nolabaiteko moteltzea hauteman da aurreko hiruhilabeteko tasaren aldean, bertako gobernua, ekonomia gehiegi berotu ez dadin, kreditua murrizteko onartu zituen neurrien ondorioz. Hain zuzen ere, kontsumoko prezioen urte arteko hazkundera %3,5era iritsia zen dagoeneko abuztuan. Errusiak, berriz, puntu bat baino zertxobait gehiago bizkortu zuen bere urte arteko tasa, munduko susperraldiak energia merkatuetan eragin duen bizkortzeari esker. Nabarmentzen ari diren beste bi erraldoiek, hots, Indiak eta Brasilek, %8,8an kokatu zuten beren urteko tasak, aurreko emaitzaren aldean oso aldakuntza txikiak jasota.

Munduko ekonomiaren bizitasunak oso eragin handia dauka lehengaien salneurrian. Izan ere, The Economist aldizkariak osatzen duen lehengaien indizeak (eurotan neurtuta) serie osoko baliorik gorena izan zuen irailean, urte arteko tasan %36,4 garestitu ondoren. Adierazle horren barruan, industriako ekoizkinen garestitzea (%42,7) nabarmendu da, hala produktu metalikoena nola metalikoak ez direnena. Orobat, elikagaietarako erabiltzen diren lehengaiak

ere garestitu dira (%31,6), aleak saltzen dituzten hainbat herrialdetan izan diren zailtasunengatik. Aitzitik, petrolioaren upelaren salneurriak ia ez du aldakuntzarik izan azken zazpi hilabeteetan, eta 60 euroaren inguruan jarraitzen du upelaren prezioak.

Truke tasaren eta lehengaien indizearen bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Ekonomia eremu guztietara hedatzen ari den hazkunde erritmoa areagotzeko testuinguru horretan, EAEko ekonomiak urte arteko tasa positiboak berreskuratzea lortu zuen, sei hiru hilabetez jarraian tasa negatiboak jaso eta gero. Hain zuzen ere, EAEko barne produktu gordina %0,5ean kokatu zen, espainiar ekonomiak lortutako tasa (%-0,1) baino nabarmen gorago baina Europar Batasunaren emaitzatik (%2,0) urrun. Euskal autonomia erkidegoak lortu duen hobekuntzaren atzean, barne eskariaren bilakaera dago, aurreko hiruhilabeteetan baino gutxiago jaitsi baitzen. Zehazkiago adierazita, barne eskariaren urte artekoa lehen hiruhilabetekeko % -2,6tik bigarreneko % -0,5era mugatu zen, hazkundeari eginiko ekarpen negatiboa bi puntu baino gehiago murriztuz. Balantzaren beste platerean, kanpo arloaren ekarpen positiboa nabarmen gutxitu zen eta puntu bakar batean kokatu. Testuinguru dinamiko batek eta euroaren ahultasunak esportazioak oso bizkor areagotzeko balio zuten arren, EAEko barne eskariaren susperraldiak kanpoko merkatuetan egiten diren erosketak ere areagotzeko balio izan zuen.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	1,3	-3,8	-4,3	-4,5	-3,1	-0,8	0,5
Enplegua	0,3	-3,4	-4,1	-3,7	-3,0	-1,8	-0,6
Ekoizkortasun irabaziak	1,0	-0,4	-0,2	-0,8	-0,1	1,1	1,1
Langabezia tasa	3,8	8,1	7,8	8,3	8,7	8,9	9,1
Kontsumoko prezioen indizea	4,1	0,3	0,0	-0,3	0,5	1,0	1,5

Iturria: Eustat eta INE.

Kontsumo pribatuak bizitasun harrigarria erakutsi zuen, kontuan hartzen bada epealdi horretan lanpostuak galdu zirela berriro eta soldata errealak ia ez zirela ezer igo. Kontsumo pribatuaren gorakada horren atzean ezkututzen diren arrazoiak iragankorrak dira eta ibilgailuak erosteko eman ziren diru laguntzei eta BEZaren uztaleko igoeraren aurrean erosketak aurreratzeari lotuta daude. Dena dela, kontsumitzaileen igurikimene hobekuntza ere kontuan hartu behar da kontsumo pribatuaren igoera hori aztertzeke orduan. Kontsumo publikoak ere ondorengo hiruhilabeteetan iraungo ez duen emaitza positiboa jaso zuen, administrazioak onartu dituen hersturako neurriak aurtengo bigarren erdian gehiago hautemango direlako.

Bigarren hiruhilekoan gutxiago jaitsi bazen ere, kapitaleko eraketa gordinak oso tasa negatiboak jaso zituen berriro (%-6,5). Hauxe da Europarekiko aldea markatzen duen osagaia, zeren eta hala kontsumo pribatuak nola kontsumo publikoak portaera biziagoa erakutsi baitzuten EAEn Europan baino. Zehazkiago adierazita, Europar Batasunak lortu duen bultzadaren zati handi bat (hazitako 2,0 puntuetatik 1,6) izakinen aldakuntzak egindako ekarpena da, etorkizuneko eskariei aurre egin ahal izateko, enpresen artean bizi den giroa oso baikorra den testuinguru batean.

EAEko enpleguak jaitsiera erritmoak murrizten jarraitu zuen eta %-0,6an kokatu zuen urte arteko tasa, aurreko balioen oso azpitik. Emaitza horrek iradokitzen du ekoizkortasuneko irabaziak berreskuratzen ari direla, 2009. urteko galeren ondoren. Ohikoa izan denez, industria da irabazi horiek ahalbidetzen dituen sektorea, une hauetan langileen kopurua eskarien murrizketara egokitzen ari delako. Langabezia tasa beste bi hamarren igo zen bigarren hiruhilekoan, baina oraindik Espainiako tasaren erdia da eta Europako tasaren inguruan jarraitzen du. Azkenik, inflazioa kontrolpean dago oraindik eta azken hilabeteetan KPI indizea igo zen arren, oraindik egonkortasuna definitzen duen balioaren (%2,0) azpian dago.

2010eko bigarren erdiari begira, ez da hobekuntzarik espero urte arteko hazkundearen erritmoan eta nolabaiteko egonkortasuna iragartzen da bigarren hiruhilekoan lortutako tasaren inguruan (%0,5). Izan ere, hirugarren hiruhilabeteko balioa bigarrenekoaren antzekoa izango dela aurreikusten da, azken hiruhilabeteetako bizkortzea bertan behera utziz. Kontsumo pribatua ez da gai izango bigarren hiruhilabeteko emaitza (%1,4) berdintzeko, neurri batean, etorkizunean jarraipenik izango ez duten gertakari jakin batzuen ondorioa izan delako, hala nola automobilak erosteko diru laguntzak eta uztailetik aurrera indarrean dagoen BEZ altuagoa saihesteko aurreratu diren erosketak. Era berean, administrazioak onartu dituen hersturako neurri gehienak hirugarren hiruhilekoan sartu dira indarrean. Beraz, kontsumo publikoak behera egingo du.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENEN LABURPENA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2010		2011			
			III	IV	I	II	III	IV
BPG erreala	0,2	1,4	0,5	0,7	1,1	1,2	1,6	1,8
BPGren deflatoea	1,6	2,2	1,8	2,0	2,1	2,2	2,2	2,4
Enplegua	-0,8	0,4	-0,5	-0,3	0,1	0,2	0,6	0,8
Langabezia tasa	9,2	9,2	9,4	9,5	9,4	9,2	9,2	9,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskariaren gainontzeko osagaiek portaera hobea erakutsiko dute. Izan ere, inbertsioaren beherakada erritmoa gutxituz joango dela aurreikusten da, ekonomia eragileen artean konfiantza hedatuko den neurrian. Era berean, kanpo arloak hazkunderari ekarpen positiboak egingo dizkio ondorengo hiruhilabeteetan ere, kanpoko produktuen eskaria gaitutuko duten esportazioen bultzada garrantzitsu bati esker.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren susperraldi hasiberria hiruhilekoz hiruhileko finkatuko da eta eraikuntzak 2008. urtea hasi zenetik jaso dituen beherakada biziak leunduko ditu. Zerbitzuen balio erantsia, bereziki merkaturatzen direnena, gero eta gehiago haziko da.

2011. urtea hasi arte itxaron beharko da enpleguaren hazkundera berreskuratzeko, baina 2010eko bigarren erdirako estimatu diren jaitsierak lehen seihilabetekoak baino nabarmen txikiagoak dira. Horren ondorioz, langabezia tasa hamarren gutxi batzuk igoko da, %9,5 arte. Gero, gutxitzeko joera arina hartuko du eta datorren urteko amaieran %9,0an kokatuko da.

EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua

Aurtengo bigarren hiruhilekoaren ezaugarri nagusiak finantza merkatuetako gorabehera handiak eta Greziako zor subiranoaren arazoak izan ziren. Horien ondorioz sortu zen konfiantza krisi larriak eragin handia izan zuen Europako hainbat ekonomiatan, bereziki zaurgarriagoak direnetan, bertako finantza publikoek narriadura garrantzitsua izan dutelako eta metatu zaizkien desorekak oso handiak direlako. Hala ere, eta ezegonkortasuneko aldi honek Atlantikoaren bi aldeetako ekonomiei eragin bazien ere, jarduera ekonomiko errealean izan zuen eragina nahiko mugatua izan zen.


Horiek horrela, munduko ekonomiaren susperraldia gehien bultzatzen ari direnak garapen bidean dauden Asiako herrialdeak dira, bereziki Txina eta India, hazkunde tasa sendoak jaso baitzituzten. Hala ere, eta garatzen ari diren ekonomiek oraindik gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu bazituzten ere, hedatzeko erritmoa maila iraunkorragoetara moteltzen ari dela iragartzen duten hainbat zantzu hauteman dira. Ekonomia aurreratuen artean, munduko hazkundeari ekarpen handiena egin ziotenak AEB, Alemania eta, neurri txikiagoan, Japonia izan ziren.

Jardueraren bilakaera positiboarekin batera nazioarteko merkataritzaren susperraldia sendotu zen eta lan merkatua egonkortu, atzeraldia hasi zenetik gertatu ziren enplegu galera orokorren ondoren nolabaiteko hobekuntza izan baitzuen. Prezioen bilakaera neurritsua izan zen mundu mailan, eta ekonomia garatuetan eta garapen bidean dauden herrialdeetan jasotzen ari diren hazkunde tasa ezberdinak islatzen dira bilakaera horietan. Hain zuzen ere, inflazioaren goranzko presioak nabarmenagoak izan ziren garapen bidean dauden ekonomietan, eta herrialde batean baino gehiagotan beharrezkoa izan zen moneta politika emeki-emeki gogortzea salneurrien gorakadak moteltzeko.


Argitaratu den azken informazioak pentsarazten du finantza krisiaren une larriena atzean geratu dela eta munduko ekonomiaren susperraldiak erritmo onean jarraituko duela. Hala eta guztiz ere, Europako zenbait herrialderen zor publikoaren maila altuak, AEBetako higiezin merkatuetan gerta daitekeen ahultasuneko beste aldi batek, zerga eta moneta alorretako neurriak kentzeak eta izakinen oraingo zikloaren amaierak aurreikuspenetarako erakunde nagusiak aurtengo bigarren seihilekoan ekonomiaren susperraldia ahulduko dela ziurtatzera behartu dituzte.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina
Hiruhilabete arteko aldakuntza tasak


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Garapen bidean dauden ekonomiak, Txina eta India buruan direlarik, hazkundearen bultzagile nagusiak izan ziren berriro. Hain zuzen ere, India %8,8 hazi zen 2010eko bigarren hiruhilekoan eta bi urteko gorakadarik handiena lortu zuen. Nekazaritzaren eta industriaren ekoizpen sendoak krisiaren aurreko mailetara itzuli zuen Indiako ekonomia. Txina, berriz, %10,3 hazi zen, aurtengo lehen hiru hilabeteetako %11,9aren aldean nolabaiteko moteltzea bada ere. Gorakada garrantzitsu horren atzean, barne kontsumoaren eta inbertsioaren protagonismo handiagoa dago, baina baita kanpo eskariaren ekarpen handia ere, neurri batean ekonomia aurreratueta barne eskariak ezari-ezarian sendotu direlako. Hazkunde sendo horien ikuspegia prezioen bilakaerak bakarrik lausotu zuen. Txinan, inflazioa %3,5era igo zen abuztuan, azken hogeita bi hilabetea mailarik gorena baita eta bertako gobernuak ezarri zuen %3ko erreferentzia baino altuagoa. Indian, berriz, uztailera KPI indizea %11 baino gehiago hazi zen. Taiwanen, Hego Korean eta Thailandian barne eskarien bizitasunak gorantz bultzatu zituen inflazioaren presioak. Horren ondorioz, interes tasa ofizialak eta erreserbako koefizienteak igotzen hasi ziren.

Garatutako herrialdeek ez zuten horren emaitza bikainik lortu, baina hazkunde tasa garrantzitsuak eta aurreko hiruhilabeteetakoak baino handiagoak jaso zituzten. Hain zuzen ere, AEBek lortu zuten eremu horretako hazkunderik sendoena eta goranzko norabidea finkatu zuten, bertako BPG %3,0 hazita, 2006ko hasieratik inoiz jaso duen handiena baita. Inbertsioak, oro har, baina baita etxegintzan eginikoak ere, susperraldi garrantzitsua lortu zuen eta lehen gehikuntza tasa positiboa jaso zuen, lau urte eta erdiz jarraian etengabeko beharakadak izan ondoren. Kontsumo pribatuaren eta gastu publikoaren suspertzeak ere ekonomia jardueraren gorakada lagundu zuen. Izan ere, hazkundera ere biziagoa izan zitekeen kanpo eskari garbia uzkuritu izan ez balitz, BPGri hainbat hamarren kendu baitzizkion. Lan merkatuak oso ahul jarraitu zuen, nahiz eta uztailera langabezia tasak nolabaiteko hobekuntza izan zuen eta bi hamarren gutxitu zen, %9,5ean kokatu arte. Hala ere, langabeen kopuruak 14,5 milioi lagunetik gorakoa zen, urte hasierakoa baino zertxobait txikiagoa, baina inoizko maila goreneta bat. Azkenik, prezioak kezka iturri bihurtu dira Erreserba Federalarentzat abuztuan %1,1era jaitsi zirelako eta maila hori enplegua sustatzeko eta prezioen egonkortasunerako Fedek egokitzen jotzen duen mailaren azpian dago.

Japonian, ekonomiaren susperraldiak indarra galdu zuen aurtengo bigarren hiruhilekoan eta bertako BPG %2,4 hazi zen, urte hasierako %4,4 sendoaren ondoren. Yenaren balio irabaziak esportazioak moteldu zituen, kontsumo pribatuak atzera egin zuen eta gastu publikoak itxura ahula eskaini zuen. Horien ondorioz, ekonomiaren susperraldia apaldu zen. Lan merkatuak ere okerrera egin zuen 2010eko bigarren hiruhilekoan eta langabezia tasa %5,2ra igo zen uztailera, maila txikia beste ekonomia batzuekin alderatzen bada, baina 2009ko uztailera jaso zen inoizko mailarik gorenetik hurbil dago. Prezioei dagokienez, barne eskariaren ahultasunak deflazioarako joera puztu zuen, baina nolabaiteko moteltzea hauteman zen, uztailera kontsumo prezioak %-0,9an kokatu zirelako, 2009ko amaierako %-2,5etik urrun.

Greziako zor subiranoaren krisiak arazoak eta zurrumbiloak sortu zituen eta Irlandara, Italiara, Portugalera eta Espainiara hedatu zen gero. Hala eta guztiz ere, Europa %2,0 hazi zen, aurreikuspen guztiak txiki utzita. Gorakada horri esker, urte arteko aldakuntza tasa bi hiruhilekoz jarraian hazi da. Hazkundera izakinen aldakuntzaren ekarpen positiboaren ondorioa da, baina, neurri txikiagoan, baita kontsumoaren, esportazioen eta inbertsioaren bilakaera onari esker ere. Hala ere, eremu horretako hazkundera albiste guztiak ez ziren onak, hazkunde erritmoa herrialde batzuetan eta besteetan oso ezberdina izan zelako, zalantza batzuk agerian utziz.

INGURUNEKO EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2008	2009	2009			2010			
			II	III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
BPG erreala									
AEB	0,0	-2,6	-4,1	-2,7	0,2	2,4	3,0	---	---
Japonia	-1,2	-5,2	-5,9	-4,8	-1,4	4,4	2,4	---	---
EB - 27	0,5	-4,2	-5,1	-4,3	-2,2	0,7	2,0	---	---
- Alemania	1,0	-4,7	-5,5	-4,4	-2,0	2,0	3,7	---	---
- Frantzia	0,2	-2,6	-3,1	-2,7	-0,5	1,2	1,7	---	---
- Erresuma Batua	-0,1	-4,9	-6,0	-5,4	-3,0	-0,3	1,7	---	---
Inflazioa									
AEB	3,8	-0,4	-1,2	-1,6	1,4	2,4	1,8	1,2	1,1
Japonia	1,4	-1,4	-1,0	-2,2	-2,0	-1,2	-0,9	-0,9	-0,9
EB - 27	3,7	1,0	0,9	0,4	1,0	1,7	2,0	2,1	2,0
- Alemania	2,8	0,2	0,3	-0,4	0,3	0,8	1,0	1,2	1,0
- Frantzia	3,2	0,1	-0,3	-0,5	0,4	1,4	1,8	1,9	1,6
- Erresuma Batua	3,6	2,2	2,1	1,5	2,1	3,3	3,4	3,1	3,1
Langabezia tasa									
AEB	5,8	9,3	9,3	9,6	10,0	9,7	9,7	9,5	9,6
Japonia	4,0	5,1	5,1	5,4	5,2	4,9	5,2	5,2	---
EB - 27	7,0	8,9	8,8	9,2	9,4	9,6	9,6	9,6	9,6
- Alemania	7,3	7,5	7,6	7,6	7,4	7,3	7,0	6,9	6,8
- Frantzia	7,8	9,5	9,4	9,6	9,8	9,9	9,9	10,0	10,1
- Erresuma Batua	5,6	7,6	7,7	7,8	7,8	7,9	7,8	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Zalantzarik gabe, Alemania izan zen hazkunde horren eragile nagusia. Nazioarteko merkataritzaren suspertzeak eta euroaren ahultasunak Alemaniako esportazioak areagotu

zituzten. Horri gehitu behar zaio inbertsioa sendo hazi zela. Beraz, Alemania %3,7 hazi zen bigarren hiruhilekoan, 2009ko lehen hiruhilabetetik izan duen tasarik gorena baita. Frantziak eta Erresuma Batuak erritmo ona lortu zuten, baina nabarmen txikiagoa, biek %1,7 hazi zirelako. Bi herrialde horietako hazkundea kontsumo pribatuaren sendotasunean eta inbertsioaren suspertzean oinarritu zen, bereziki britainiarren kasuan, non kapitaleko eraketa gordina %3,0 baino gehiago gehitu baitzen. Aitzitik, kanpo saldoak bi hamarren bakarrik ekarri zizkion Frantziako hazkundeari eta puntu bat baino gehiago kendu zion Erresuma Batuari. Azken tokietan kokatu ziren Espainia (%-0,1), hazkunde positiboetara itzultzea ez baitzuen lortu, eta, bereziki, Grezia, %-3,5era areagotu baitzuen bere jaitsiera tasa.

Eremuaren inflazioa egonkor mantendu zen %2,0aren inguruan bigarren hiruhilekoan eta ondorengo hilabeteetan ere. Izan ere, Europako herrialde nagusi ia guztiek inflazioa %2,0aren azpian mantendu zuten, salbuespen bakarra Erresuma Batua izan zelarik, bertako tasa %3,1ean kokatu baitzen. Azkenik, lan merkatuak ez zuen bat egin ekonomia jardueraren susperraldiarekin edo prezioen egonkortasunarekin. Salbuespena Alemania da, hamalau hilabete baitaramatza langabezia tasa jaisten eta dagoeneko langabeen kopurua hiru milioi lagunetik behera dago, lehenengo aldiz 2003ko erdialdetik. Gainontzeko ekonomiek, Espainia buru delarik, lanik gabeko pertsonen kopurua areagotu zuten, baina nolabaiteko egonkortzea hauteman da hazkunde erritmoan. Hala eta guztiz ere, uztaillean langabeen kopuruak 23 milioi laguneko langa gaingitu zuen, eta langabezia tasak aldaketarik gabe jarraitu zuen %9,6an seigarren hilabetez.

Espainiako ekonomiak ere hobekuntza garbia erakutsi zuen lehen hiruhilabeteko emaitzen aldean, baina hobekuntza hori ez zen nahiko izan hazkunde positiboak berreskuratzeko. Hain zuzen ere, urte arteko tasa %-0,1ean kokatu zen, azken zazpi hiruhilabeteko emaitzarik onena baita. Kontsumo pribatuak gorakada handia jaso zuen, hainbat erosketa aurrerratu zirelako, alde batetik, gasturako diru laguntza publikoak eskaintzen zituzten egitasmo batzuk amaitzeaz zeudelako eta, beste aldetik, BEZ zergak uztaillean igo behar zuelako. Orobat, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren hazkunde biziak barne eskaria egonkortasunetik hurbil kokatzea ahalbidetu zuen, zeren eta 0,5 puntu bakarrik kendu baitzizkion BPGri. Kanpo arloak, berriz, ekarpen positiboa egin zion berriro hazkundeari. Eskaintzaren ikuspegitik, industriak eta zerbitzuek bizitasuna irabazi zuten eta hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituzten. Aitzitik, lehen arloak eta, bereziki, eraikuntzak beherakadak areagotu zituzten. Azken arlo horrek azpiegituretako lanen eta bizitegiatarako ez diren eraikinen bilakaera txarra nabarmendu zuen.

Espainiako ekonomiaren hobekuntzak bere isla utzi zuen lan merkatuan ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideen bilakaerak nabarmen gutxitu baitzuen bere narriadura erritmoa, lehen hiruhilabeteko %-3,7tik bigarreneko %-2,5era. Enpleguaren jaitsiera txikiagoa ekonomiaren

adar guztietan hauteman zen, salbuespen bakarra nekazaritza izan zelarik. Azpimarratzekoa da eraikuntzaren eta industriaren emaitza, nahiz eta oraindik tasa negatibotan jarraitu zuten. Hala ere, 32.800 lanpostu galdu ziren hiruhileko horretan eta langabezia tasa %20,05era igo zen.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	0,9	-2,3	-3,0	-2,3	-1,8	-0,3	1,5
- Familien gastua	-0,6	-4,3	-5,5	-4,2	-2,6	-0,3	2,0
- Administrazioaren gastua	5,8	3,2	4,3	2,7	0,2	-0,2	0,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	-4,8	-16,0	-18,0	-16,4	-14,0	-10,5	-7,0
- Ekipamendurako ondasunak	-2,5	-24,8	-31,5	-25,5	-16,9	-4,8	8,7
- Eraikuntza	-5,9	-11,9	-12,0	-11,7	-11,9	-11,4	-11,4
- Bestelako ekoizkinak	-4,1	-16,2	-16,9	-18,7	-17,2	-15,4	-12,4
- Izakinen aldakuntza (*)	0,1	0,0	0,0	0,0	-0,1	0,0	0,1
Nazio eskaria (*)	-0,6	-6,4	-7,5	-6,5	-5,3	-2,8	-0,5
Esportazioak	-1,1	-11,6	-15,8	-11,0	-2,1	8,8	10,5
Inportazioak	-5,3	-17,8	-22,2	-17,2	-9,2	2,0	8,1
BPG (m.p.)	0,9	-3,7	-4,4	-3,9	-3,0	-1,3	-0,1
Nekazaritza eta arrantza	-2,1	1,0	0,7	1,6	1,5	-2,2	-3,5
Energia	5,8	-6,4	-6,5	-7,3	-6,3	0,1	0,2
Industria	-2,7	-13,6	-15,9	-14,8	-11,0	-2,3	2,2
Eraikuntza	-1,6	-6,2	-6,3	-7,1	-5,4	-6,3	-6,4
Zerbitzuak	2,3	-1,0	-1,6	-0,9	-0,9	-0,4	0,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,1	-6,0	-6,8	-6,5	-4,8	-1,2	1,7
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	4,1	-0,3	-0,7	-1,1	0,1	1,1	1,6
- Enplegua (**)	-0,5	-6,6	-7,2	-7,3	-5,6	-3,7	-2,4

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioa martxoko %1,5aren eta uztailleko %1,9aren artean mugitu zen, abuztuaren %1,8an kokatu arte. Erregaien salneurriak izan zituen aldakuntzak daude gorabehera horien atzean eta eragin berezia izan zuen garraioaren eta etxebizitzako produktuen prezioetan.

Azkenik, administrazio publikoek, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, %42,2 gutxitu zuten defizit publikoa abuztuan 2009ko hilabete beraren aldean. Diru bilketaren hobekuntzak eta gastuen murrizketak 34.849 milioi eurora gutxitu zuten Estatuaren finantzazio beharra aurtengo lehen zortzi hilabeteetan. Diru kopuru hori BPGren %3,3aren baliokidea da.

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek bigarren hiruhilabeterako argitaratu dituen hiruhilekako kontuen datuek baieztatzen dute EAEko ekonomia hazkunderako ibilbidea emeki-emeki berreskuratzen ari dela. EAEko barne produktu gordina hiru hamarren hazi zen aurreko hiruhilabetearen aldean eta urte arteko aldakuntza tasa %0,5ean kokatu zen, hazkunde fasea 2008ko azken hiruhilabeteetan bertan behera geratu zenetik lehen datu positiboa delarik.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Barneko azken kontsumoa	1,9	-2,1	-2,6	-2,8	-1,5	-0,3	1,4
- Familien gastua kontsumoan	0,6	-3,7	-4,4	-4,2	-2,5	-0,6	1,4
- Herri admin. gastua kontsumoan	7,0	3,7	4,0	2,6	2,4	0,5	1,4
Kapital eraketa gordina	-2,2	-15,4	-16,2	-17,1	-14,6	-9,8	-6,5
Barne eskaria	0,7	-5,7	-6,3	-6,7	-5,0	-2,6	-0,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,4	2,3	2,5	2,4	2,1	1,8	0,9
Esportazioak	0,0	-18,4	-20,5	-20,0	-15,7	1,1	11,1
Inportazioak	-0,8	-20,1	-22,2	-21,6	-17,7	-2,3	9,0
BPG (m.p.)	1,3	-3,8	-4,3	-4,5	-3,1	-0,8	0,5
Lehen arloa	-6,1	3,6	15,1	-2,6	-13,0	-26,6	-4,2
Industria	-0,6	-12,7	-13,7	-14,8	-9,4	-2,3	0,9
Eraikuntza	-5,8	-3,6	-4,8	-2,1	-1,1	-5,4	-5,5
Zerbitzuak	3,3	-0,2	-0,4	-0,6	-0,8	0,5	0,9
Balio erantsi gordina	1,2	-4,0	-4,4	-4,8	-3,3	-0,9	0,3
Ekoizkinen zerga garbiak	2,3	-2,0	-2,5	-2,4	-0,9	-0,1	2,2

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Eskaintzari dagokionez, industriaren balio erantsiak balio positiboak berreskuratu zituen eta, zerbitzuekin batera, EAEko ekonomiaren jarduera dinamikoena izan zen. Orobat, industriak dauka ekonomiaren aurrerapenaren ardura nagusia. Balantzaren beste aldean, eraikuntza kokatu zen, beste aldakuntza tasa negatibo garrantzitsu bat jaso zuelako.

Eskariaren ikuspegitik, zergen igoera saiheste aldera erosketak aurreratzeko erabakia eta automobilak erosteko gobernuak eman zituen diru laguntzak izan ziren aurtengo bigarren hiruhilekoan kontsumo pribatua gorarazi zuten faktore nagusiak. Beste aldetik, administrazio publikoek aurrekontuetan ezarri dituzten murrizketak ez dira oztopoa izan kontsumo publikoa hazteko, baina garbi dago joera aldaketa bat gauzatu dela eta orain beheranzko norabidea hartua duela osagai horrek. Kapitaleko eraketa gordina oso nabarmen hazi zen bigarren hiruhilekoan, baina oraindik tasa negatibo handitan dago kokatuta. Eraikuntzan eginiko inbertsioak bizi duen egoera zaila nekez konpentsatu dezake ekipamenduan eginiko inbertsioak, azken honek suspertzeko zantzuak erakusten hasi zen arren. Hala eta guztiz ere, barne eskariak ekarpen negatiboa egin zion berriro BPGren bilakaerari eta bost hamarren kendu zizkion hazkundeari. Kanpo arloaren ekarpena positiboa izan zen eta puntu baten ingurukoa.


Ekoizpen jarduera

Nekazaritza eta arrantzaren balio erantsi gordinak %-4,2 egin zuen behera 2010eko bigarren hiruhilekoan. Hala ere, jarduera adar horrek hazkunde tasa altua jaso zuen aurreko hiruhilabetearen aldean, batez ere aurtengo lehen hiru hilabeteetan oso emaitza txarrak jaso zirelako.


EAEko industriak suspertzeko zantzuak erakutsi zituen 2010eko bigarren hiruhilekoan, urte arteko aldakuntza tasa %0,9an kokatuta, azken zazpi hiruhilabeteetan BPGren hazkundeari egiten dion lehen ekarpen positiboa delarik. Industria giroaren indizea suspertuz joan da etengabe azken hilabeteetan -5,8 puntuko saldoan kokatu arte, adierazle honek izan duen baliorik apalena, 2009ko bigarren hiruhilekoan jaso, atzean utzita. Eustatek osatzen duen industria produkzioaren indizeak hobekuntza txikiak jaso zituen industriaren adarretan 2010eko bigarren hiruhilabetearen zehar. Osagai guztiek, inolako salbuespenik gabe, ekoizpena areagotu zuten, indar gehiagoz edo gutxiagoz. Izan ere, susperraldi txiki hori hirugarren hiruhilabetearen lehen hilabeteetan ere hautematen da eta portaera onena izan duten taldeak kontsumoko ondasunak eta bitarteko ondasunak izan dira. Ekipamendurako ondasunen ekoizpenak, berriz, hazkunde apalagoa jaso du.

Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Analisia ekoizpen adarretan fokatzen bada, oso bestelako portaerak hautematen dira batzuen eta besteen artean. Hazkunde handienak izan zuten eta industriaren susperraldian aitzindariak izan ziren adarren artean garraio materiala, industria kimikoa, kautxua eta plastikoa, eta metalurgia eta artikulua metalikoak nabarmendu behar dira.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010			
			II	III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
Industria									
Balio erantsi gordina	-0,6	-12,7	-13,7	-14,8	-9,4	-2,3	0,9	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	-3,8	-20,8	-23,7	-22,0	-14,3	0,1	5,1	5,3	5,6
Industria giroaren indizea	-11,1	-42,0	-44,1	-41,9	-39,2	-29,8	-19,3	-14,6	-5,8
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	80,7	66,9	64,7	65,6	66,0	65,2	68,8	71,8	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,6	-7,8	-8,3	-9,2	-8,1	-6,8	-4,6	-3,1	-3,2
Eraikuntza									
Balio erantsi gordina	-5,8	-3,6	-4,8	-2,1	-1,1	-5,4	-5,5	---	---
Eraikuntzaren indizea	1,8	-12,7	-12,5	-15,1	-14,5	-14,3	-14,2	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-35,0	-24,6	-23,4	-38,3	-41,6	-31,2	-18,5	-33,8	---
Etxebizitzaren salerosketak	-25,6	-19,4	-27,0	-11,8	-17,4	23,5	33,7	48,2	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,3	-6,6	-8,3	-6,8	-4,3	-8,1	-6,7	-7,1	-7,1
Zerbitzuak									
Balio erantsi gordina	3,3	-0,2	-0,4	-0,6	-0,8	0,5	0,9	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	-4,7	-13,5	-16,5	-8,2	-4,8	6,5	6,3	---	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	-3,2	-2,1	1,5	3,4	3,1	10,9	12,3	10,8	15,6
Hoteletako okupazioa	44,4	41,3	42,7	54,3	37,7	31,5	44,6	56,2	67,0
Negozio zifren indizea	0,2	-13,0	-18,5	-13,3	-5,9	0,7	7,5	-0,8	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,3	-0,6	-1,0	-0,5	-0,7	0,2	1,0	1,2	1,0

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzako eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaren bilakaerak, beste hiruhileko batez, beheranzko joera bizia erakutsi zuen. Eustatek argitaratu dituen hiruhilabetekako kontu ekonomikoen arabera, arlo horretako balio erantsiaren urte arteko hazkundea %-5,5 izan zen. Jarduera adar horrek bizi duen doikuntza sakonak 2010eko lehen sei hilekoan zehar jarraitu zuen. Izan ere, EAEen dagoen etxebizitza berrien stocka oraindik igotzen ari da eta eskaintza ez da eskarira egokitzen. Urte batzuk beharko dira gehiegizko eskaintza horri aterabidea emateko eta, horren ondorioz,

etxegintzaren jarduera onbideratzeko. Obra zibilari dagokionez, eraikuntza publikoari laguntza emateko egitasmoen amaierak gainbehera ekarri dio arlo horri. 2010eko bigarren hiruhilekoan, eraikuntzaren koiuntura indizeak sektore horrek bizi duen une txarra baieztatu zuen eta eraikinen adarraren urte arteko beherakada %-11,9an kokatu zuen, obra zibilarena %-17,9ra zabaldu zen bitartean.

Zerbitzuetako adarrek ere hobekuntzako zantzuak erakutsi zituzten eta EAEko ekonomiak azken hilabeteetan aurkeztu zuen susperraldian parte hartu zuten. Hain zuzen ere, arlo osoaren balio erantsia %0,9 hazi zen urte arteko tasan 2010eko bigarren hiruhilekoan, aurreko epealdian %0,5 hazi zen bitartean. Hirugarren sektoreak erakutsi zuen sendotasuna merkaturatzen diren zerbitzuen portaera onari zor zaio, %1,0ko hazkundea lortu zutelako, aurreko hiruhilabeteko emaitza lau hamarrenetan gaindituz. Aitzitik, salmentarako ez diren zerbitzuak %0,3 baino ez ziren gehitu, azken bost urtean izan zituzten balio altuetatik oso urrun.


Zerbitzuetako jarduera adierazleen azken informazioak ere sektorearen hobekuntza iradokitzen du 2010eko bigarren hiruhilabeteterako. Gaualdien kopuruaz eta hotelen betetze mailaz argitaratu diren datuek turismoaren bizkortze arina islatzen dute. Aitzitik, salmenten adierazleek ez zuten seinale garbirik bidali merkataritzaren bilakaeraz. Izan ere, handizkako merkataritzak aurtengo lehen sei hilabeteetan bizitasuneko norabidea erakutsi zuen, baina txikizkako merkataritzak atzerakada bat nozitu zuen seihilekoaren azken zatian. Edozein modutan ere, enpleguaren hainbat adierazlek, hala nola Gizarte Segurantzaren zerbitzuetan izena emanda dauden afiliatuen kopuruak, emaitza onak aurkeztu zituzten bigarren hiruhilekoan lanpostuen sorkuntzari dagokionez.

Eskariaren osagaiak


Barneko azken kontsumoaren gastuak bizkortzeko joera erakutsi zuen bigarren hiruhilekoan. Hazkundearen gorakada sendoa agregatua osatzen duten bi osagaiak eragin zuten. Alde batetik, familien kontsumoak %1,4ko urte arteko hazkundea jaso zuen, azken zazpi hiruhilekotako lehen tasa positiboa delarik. Beste aldetik, administrazio publikoek eginiko kontsumoa ere %1,4 hazi zen 2010eko apiriletik ekainera bitarteko epealdian. Horiek horrela, azken kontsumoko gastua, oro har, barne eskariaren osagairik dinamikoena izan zen eta, neurri batean, inbertsioaren beherakada nabarmena galgatu zuen.

Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

EAEko familien kontsumoak nabarmen areagotu zuen goranzko erritmoa eta 2010eko bigarren hiruhilabeteko hazkundea %1,4an kokatu zen. 2008ko hilabete beretik ez zen maila horretako tasarik jaso. Gehikuntza bizi horren atzean, kontsumitzaileek erosketak aurreratu izana egon daiteke, 2010eko uztailan indarrean sartu zen BEZ zergaren igoera saihesteko eta ibilgailuak erosteko gobernauk eman zituen diru laguntzez baliatzeko. Turismoen matrikulazioaren datuek norabide hori seinalatzen dute eta azken hilabeteetan moteltzeko joera bizkortu dela iradokitzen dute.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009				2010		
			II	III	IV	I	II	Uztaila	Abuztua
Kontsumo pribatua									
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,6	-3,7	-4,4	-4,2	-2,5	-0,6	1,4	---	---
BMI txikizkaria	-2,7	-3,8	-3,7	-1,5	-1,8	4,4	-0,2	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-4,4	-0,5	-1,4	0,2	1,6	1,6	0,0	-1,3	-2,0
Landunak txikizkarian	1,1	-3,2	-3,7	-3,5	-3,0	0,0	1,0	---	---
Automobilien matrikulazioa (*)	-20,1	2,7	-16,5	15,1	36,3	33,2	25,8	6,9	6,1
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	79,5	75,6	67,0	72,0	93,0	81,0	82,0	---	---
Kapital eraketa gordina									
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-2,2	-15,4	-16,2	-17,1	-14,6	-9,8	-6,5	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-2,5	-28,9	-28,9	-40,4	-20,8	-4,6	3,4	3,4	4,2
IPI ekipamendua Estatu (*)	-9,6	-21,4	-26,3	-18,5	-12,7	-1,4	-1,3	-0,8	-11,2
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	-1,1	-31,0	-31,9	-24,4	-25,8	0,4	4,9	---	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-39,9	-35,6	-46,8	-35,6	-12,5	4,4	6,2	3,6	2,4

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapitaleko eraketa gordinak beste aldakuntza negatibo garrantzitsua jaso zuen eta %-6,5eko urte arteko tasa izan zuen 2010eko bigarren hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilabeteko emaitza hiru puntu inguru hobetu bazuen ere, agerian uzten du enpresen inbertsioen inguruan dagoen narriadura larria. Agregatuaren zenbateko horiek inbertsioaren bi osagaien portaera kontrajarria ezkututzen dute. Alde batetik, eraikuntzan eginiko inbertsioak, eta bereziki etxegintzan eginikoak, beherakada handia jaso zuen berritua eta doikuntza prozesuari segida eman zion, hazkunde biziko hiruhileko askoren ondoren ezinbestekoa baita. Ekipamendurako

ondasunen inbertsioak, berriz, hobekuntza txikia izan zuen bigarren hiruhilekoan, hainbat adierazlek, hala nola EAEko industriaren ekoizpenak eta ekipamendurako ondasunen inportazioak, iradokitzen dutenez. Enpresak oso astiro ari dira baikortasuna berreskuratzen eta hasi berria den nazioarteko susperraldia lagungarria izan zaie EAEko enpresei ekoizpena goranzko joera erakusten hasteko.

Kanpo saldoa

Ekonomia jardueraren susperraldiarekin batera, munduko merkataritza ere hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan. Ekonomia aurreratuetan, inportazioak eta esportazioak azken hamarkadako erritmoaren antzean hazi ziren -2008ko urritik 2009ko azarora bitarteko epealdia kanpoan utzita, garai horretan atzeraldiak merkataritzako salerosketak hondoratu zituelako-. Hala eta guztiz ere, garapen bidean dauden ekonomietan, merkataritzaren gorakada askoz ere biziagoa izan zen, garatzen ari diren ekonomia askotan BPGk erakutsi zuen erresistentzia ahalmenagatik eta ekonomia aurreratu zenbaiten eskaria sendo agertu zelako.

Hain zuzen ere, eta Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) lehen estimazioen arabera, salgaien munduko merkataritza %25 baino gehiago areagotu zen 2010eko lehen sei hilekoan. Izan ere, bigarren laurdeneko esportazioak ia %26 eta inportazioak %25,2 hazi zirela estimatu du erakunde horrek.


Europa nazioarteko salerosketen lehen tokian kokatu zen berriro –esportazio guztien %36,6 eta inportazioen %37,5 bildu zituen-, baina Asiak serioki mehatxatu du bere lidergoa, kontinente zaharraren kopurutik hurbil dagoen merkatu kuota bereganatu duelako. Izan ere, Europako esportatzaile nagusia eta 2009ko erdialdea arte munduko esportatzaile nagusia ere izan da Alemania, baina urtetik urtera merkatu kuota galdu du Txinaren mesedetan, azken herrialde horretan kostuak txikiagoak direlako eta yuana ahul mantentzen dutelako. Txinak munduko esportazioen %10,6 eta inportazioen %9,3 bereganatu ditu. Are gehiago, 2010eko lehen sei hilabeteetan AEBk bigarren tokia kendu zioten Alemaniari.

Hazkunde tasei dagokienez, herrialde hauen guztien salmentek gorakada handiak eta bi zenbakikoak lortu zituzten bigarren hiruhilabete osoan zehar. Hala eta guztiz ere, uztaileko egin diren lehen estimazioek nolabaiteko moteltzea erakusten dute urteko lehen hilabeteetan lortutako ezohiko mailen aldean. Hain zuzen ere, Japoniak yenaren balio irabazi handia nabaritu zuen bere emaitzetan eta Txinak bere bizitasuna apaldu zuen, gobernuak ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko onartu zituen neurrien ondorioz. Dena dela,


bizitasuneko galera hori dagoen ziurgabetasunaren ondorioa izan zitekeen eta aurtengo bigarren seihilabeterako erakunde nagusiek aurreikusten duten ahultasunaren adierazgarria izan zitekeen. Hala ere, tasa horiek oso garrantzitsuak dira oraindik eta MMAk gorantz berrikusi ditu 2010 urterako aurreikuspenak, munduko merkataritza %13,5 haziko dela iragarritz, martxoan %10,0 gehituko zela adierazi zuenean.

Ondasunen esportazioak Urte arteko aldakuntza tasak


Txina




Alemania



AEB



Japonia



Iturria: Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila, Txinako Bankua eta Japoniako Finantza Ministerioa.

EAEko ekonomia ez zen testuinguru hedakor horretatik kanpo geratu eta 2010eko bigarren hiruhilekoan gutxienez azken hamarkadan inoiz izan duen susperraldirik handiena lortu zuen. Merkataritza bazkideek erakutsi zuten bizitasunak bide eman zien EAEko esportazioei,

aurreko urteko epealdi beraren aldean, %34,0 hazteko, guztira 4.914,9 milioi euroko balioa salduta, aurreko urteko epealdi berean saldu ziren 3.667,3 milioi euroen aldean. Beste aldetik, inportazioak ere ekonomiaren gorakadaz baliatu ziren eta erabat irauli zuten (%36,4ko gehikuntza bati esker) krisia hasi zenetik nozitu zuten beherakada garrantzitsua. Hazkunde tasa handiagoa jaso bazuten ere, inportazioen balioa esportazioena baino txikiagoa izan zen. Beraz, merkataritza saldoa positiboa eta azken urteetako handiena izan zen. Energiaz bestelako fluxuen bilakaera oso antzekoa izan zen, eta atal horretako merkataritza saldoak salerosketa guztien saldoaren emaitza bikoiztu zuen.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2008	2009	2009			2010		2010-II
			II	III	IV	I	II	
ESPORTAZIOAK								
Guztira	6,3	-26,6	-35,9	-30,2	-11,1	7,3	34,0	4.914.925
Energetikoak	22,6	-30,8	-44,0	-34,2	25,8	-36,9	36,4	444.307
Ez energetikoak	4,9	-26,1	-34,9	-29,8	-13,7	10,5	33,8	4.470.618
INPORTAZIOAK								
Guztira	6,4	-38,9	-47,0	-43,4	-18,3	13,3	36,4	4.110.921
Energetikoak	22,9	-40,9	-51,2	-47,1	-9,7	8,6	37,6	1.432.152
Ez energetikoak	-0,8	-37,8	-44,4	-40,9	-21,7	15,7	35,8	2.678.769


Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.


2010eko lehen hiruhilekoan hasitako salmenten susperraldi bizia aurtengo bigarren laurdenean finkatu zen, Europako bazkideen bizitasunari eta Asiako herrialdeetako eskari sendoari esker. Salmenten hobekuntza atal guztietara hedatu zen, baita makineria eta tresnak izeneko multzora ere, oraindik urte arteko aldakuntza tasa negatiboak jasotzen jarraitu zuten arren. Metal arruntek eta beren manufacturek, eta ekipamendurako ondasunek –bi itsasontziren salmentak gorarazi zituen atal horren emaitzak- salmenta guztien ia %70 bildu zituzten. Horri gehitu behar zaio plastikoaren eta kautxuaren, eta energia ekoizkinen esportazioak nabarmen areagotu zirela. Talde horien bilakaera onari esker esportazioen guztizkoa 5.000 milioi eurora hurbildu zen.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


Energiako ondasunen esportazioak




Energiako ondasunen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. esportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. inportazioak



Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko barne eskariaren erritmo biziagoak, berriz, eragin handia izan zuen 2010eko bigarren hiruhilekoan kanpo merkatuan egin ziren erosketa gehienen gorakadan. Ia atal guztiek bi zenbakiko hazkunde tasa lortu zituzten, aurreikuspen guztiak gaindituz. Hala ere, energia ekoizkineen eta metal arrunten eta beren manufakturen inportazioak azpimarratu behar dira, gehikuntza tasa sendoak lortu zituztelako eta erosketen egituran pisu handia dutelako. Goranzko joera orokor horretatik desbideratu zen talde bakarra garraio materiala izan zen, aurreko beherakadak areagotu zituelako. Automobilak erosteko diru laguntzak amaitu izana da inportazio horien jaitsieraren arrazoi nagusia.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZA EZ-ENERGETIKOAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2010 II
	2008	2009	2009			2010		
			II	III	IV	I	II	
Esportazioak								
ELGE	3,3	-30,5	-39,0	-31,2	-20,4	3,2	28,1	3.248.670
Eurogunea	4,0	-32,8	-40,1	-33,2	-21,5	12,0	23,2	2.282.046
Europako kide berriak	7,9	-27,1	-28,1	-17,3	-14,2	19,0	23,4	217.804
Europar Batasuna 27	3,3	-32,6	-40,7	-32,5	-18,1	9,3	28,1	2.842.383
Errusia	50,4	-47,8	-53,2	-61,8	-14,4	46,4	15,9	36.045
Txina	33,6	-33,8	-40,2	-46,3	-27,9	1,1	39,1	93.252
Brasil	13,4	-25,3	-46,7	-35,6	6,8	64,9	76,2	86.303
Inportazioak								
ELGE	-2,5	-34,5	-41,2	-33,7	-16,5	18,9	30,6	2.041.148
Eurogunea	-1,7	-34,4	-40,4	-32,7	-13,5	19,3	25,5	1.532.170
Europako kide berriak	9,2	-28,9	-42,0	-26,5	-18,5	15,7	60,2	105.145
Europar Batasuna 27	-3,1	-35,2	-42,0	-34,5	-13,6	24,3	32,7	1.846.183
Errusia	5,5	-63,7	-76,7	-75,7	-35,0	19,2	174,0	96.179
Txina	-2,3	-36,2	-37,3	-42,6	-37,5	-6,8	26,2	204.012
Brasil	-1,9	-60,7	-78,0	-86,2	35,9	36,9	204,8	26.487

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Geografia eremuka aztertuta, Europar Batasuna izan zen EAEko esportazio ez-energetikoen helburu nagusia, kanpo merkatuan saldutakoaren %64aren inguru hara zuzendu baitzen. Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko ekonomien gorakadak %28,1 areagotu zituen eremu horretan saldutakoa, krisiaren aurreko urteetan ezagutu zen hazkundera gaundituz. ELGEko gainontzeko herrialdeetan, AEBetara eta Japoniara bideratutako salmentak ere igo

ziren, baina esportazio guztien egituran pisu handia galdu zuten. 2008. urteko erdialdetik gaur arte, herrialde horiek energiakoak ez diren EAEko salmenten %5,5 erostetik ozta-ozta %3,3 erostera igaro dira. ELGEtik kanpoko herrialdeek, ordea, merkatu interesgarria osatu dute esportazioetarako, bereziki ekipamendurako ondasunekin zerikusia duten ekoizkinak saltzeko, Txinan, Errusian eta Brasilen gero eta eskari handiagoa aurkitu baitzuten.

Energiaz bestelako inportazioek ere ekonomiaren susperraldiaren onurak bereganatu zituzten. Kontsumo pribatuaren hobekuntzak eta inbertsioaren egoera zertxobait hobeak bidea zabaltzen zuten energiaren bestelako erosketak %35,8 areagotzeko. Europar Batasuna izan zen EAEko enpresen hornitzaile nagusia, bereziki Frantzia eta Erresuma Batua. Bi herrialde horiek metal arruntak saldu zituzten eta hazkunde tasa bikainak lortu zituzten, %46,2 eta %92,7, hurrenez hurren. ELGEko gainontzeko herrialdeen artean, aipagarriena Japoniatik iritsitako inportazioen gorakada da, urtebete oso batez etengabeko beherakadak jaso ondoren. Beste aldetik, merkatu berrien artean, Errusia, energia hornitzaile gisa, eta Brasil, burdina eta altzairu galdaketaren hornitzaile gisa, berriro nabarmendu ziren hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituztelako. Azkenik, Txinak merkatu kuota berreskuratu zuen EAEn, berak saltzen duen garraio materialaren prezioak oso lehiakorrek direlako.


Lan merkatua

Lan merkatuak urratsak eman zituen 2010eko bigarren hiruhilekoan egonkortasunerantz eta atzean utzi zuen krisiaren une larriena. Are gehiago, 2008. urtetik enpleguan lortu duen lehen igoera jaso zuen, lan merkatua aztertzen duten bi inkesta nagusiek, hots, Eustaten BJAk eta INEren BAIk, adierazi dutenez. Hala ere, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuak oraindik ez dira positiboak eta langabeen kopurua ez da murriztu. Bi arrazoi horiengatik ezin da baieztatu hiruhilabetearen balantzea positiboa denik eta datozen hilabeteetara itxaron beharko da aipatu den joera on hori finkatzen den edo ez ziurtatzeko.


Aurreko epealdietan lan merkatua aztertzeko erabiltzen diren koiunturako estatistika guztiek norabide bereko joera seinaltzen bazuten ere, bigarren hiruhilekoan alde handiak aurkitu dira batzuen eta besteen artean. Izan ere, inkestek (BJAk eta BAIk) enplegua sortu zela adierazten dute, bereziki azken inkesta horren estimazioan (%1,0). Aitzitik, administrazioaren erregistroek emaitza ezkorragoak eskaini zituzten, Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua jaitsi zelako (irailean, aurreko urtean baino %-0,6 gutxiago zeuden) eta enplegurako zerbitzuetan izena emanda dauden langabeak igo zirelako (%5,8 irailean). Azkenik, kontu ekonomikoek oraindik balio negatiboak argitaratu zituzten bigarren hiruhilekoan (%-0,6), aurreko epealdietakoak baino galera txikiagoa izan arren.

Enplegu estatistiken bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Sektoreen analisiak enpleguaren hobekuntza baieztatzen du, neurri handiagoan edo txikiagoan guztiek suspertzeko joera erakutsi zutelako. Hala ere, zerbitzuek bakarrik lortu zuten lanpostu berriak sortzea (%0,9). Gainontzeko alorretan, beherakadak aurreko hiruhilabeteetakoak baino leunagoak izan ziren eta eraikuntzan %-5,5etik %-4,2ra igaro zen bitartean, industrian bi puntu eta bost hamarren gutxitu zen jaitsiera (aurreko hiruhilabeteke %-5,9tik bigarren hiruhilabeteke %-3,4ra).

Zerbitzuen arloan, aurreko hilabeteetan hazkunde handienak lortu zituztenek izan zituzten emaitza onenak irailean ere, afiliazioaren datuen arabera. Hain zuzen ere, ostalaritzarekin (%3,8) eta higiezin jarduerekin (%3,0) batera, beste adar batzuk ere nabarmendu dira, hala nola administrazio publikoa (%2,2), irakaskuntza (%2,9) eta osasun arloko jarduerak (%3,1). Hiru adar horietan arlo publikoaren parte hartzea garrantzitsua da eta berriki onartu diren hersturako neurriak indarrean egon arren, lanpostuak sortu dituzte.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Enplegua guztira	0,3	-3,4	-4,1	-3,7	-3,0	-1,8	-0,6
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,0	-0,4	-0,2	-0,8	-0,1	1,0	1,1
Enplegua lehen arloan	0,0	-9,6	-10,6	-9,9	-7,2	3,0	-1,0
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-6,1	14,6	28,7	8,1	-6,3	-28,7	-3,2
Enplegua industrian	-2,0	-7,1	-7,6	-8,1	-7,1	-5,9	-3,4
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	1,4	-6,0	-6,6	-7,3	-2,5	3,8	4,5
Enplegua eraikuntzan	-5,0	-6,7	-7,1	-8,1	-4,3	-5,5	-4,2
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	-0,8	3,3	2,5	6,5	3,3	0,1	-1,4
Enplegua zerbitzuetan	2,1	-1,3	-2,1	-1,2	-1,0	0,0	0,9
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	1,2	1,1	1,7	0,6	0,2	0,5	0,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Beste aldetik, ekonomia osoaren balio erantsi gordina aurreko hiruhilabetearen aldean nabarmen hobetu zenez, ekoizkortasun irabaziek gora egin zuten berriro eta %1,1ean kokatu ziren. Sektoreen artean, industriaren portaera azpimarratu behar da, krisiaren hasieran lanpostuei eustea erabaki baitzuen -2009an ekoizkortasun galera garrantzitsuak jaso zituen- baina gaur egun langileen kopurua murrizten ari da eta ekoizkortasun irabazi handiak (%4,5) jaso. Beste muturrean, eraikuntzak ekoizkortasuna irabazi zuen 2009. urtean, baina gaur egun galera garrantzitsuak jasotzen ari da, oraindik enplegu asko galtzen ari den arren.

Aurreko epealdietan gertatu zena ez bezala, BJA inkestaren bigarren hiruhilabeteako datuek inflexio gunea adierazten dute enplegua berreskuratzeko bidean, zeren eta lanpostuen kopuruak duela urtebete bat zegoena gainditu baitu. Hain zuzen ere, azken urtean 1.200 lanpostu garbi sortu ziren, emakumeen enpleguak bultzatuta, %1,3 hazi zelako. Beraz, emakumeen enplegua krisia hasi zeneko kopuruaren %0,5 bakarrik beherago dago gaur egun. Aitzitik, gizonen enplegua %6,9 murriztu da denbora horretan eta azken hiruhilekoan ere

oraindik tasa negatiboak (%-0,8) jaso zituen. Enplegu tasan neurtuta, nolabaiteko hobekuntza hauteman da talde nagusi guztietan, bereziki emakumeen taldean eta 45 urtetik beherako multzoetan.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoa

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Partaidetza tasa guztira	55,3	55,6	55,3	55,4	55,8	55,5	56,1
- Gizonak	64,5	64,0	63,6	64,0	64,2	63,5	64,1
- Emakumeak	46,7	47,6	47,4	47,3	47,9	47,9	48,5
- 16 urtetik 24ra	34,6	32,0	31,4	31,4	32,5	31,3	33,0
- 25 urtetik 44ra	86,5	87,6	87,5	87,0	87,8	87,2	87,6
- 45 urte eta gehiago	37,6	38,1	37,8	38,3	38,5	38,7	39,1
Enplegu tasa guztira	53,3	51,0	50,9	50,8	51,0	50,6	51,0
- Gizonak	62,3	58,6	58,5	58,1	58,6	57,7	58,0
- Emakumeak	44,7	43,9	43,8	43,9	43,9	43,8	44,3
- 16 urtetik 24ra	31,2	24,7	25,0	23,5	24,3	23,6	24,8
- 25 urtetik 44ra	82,9	79,8	79,8	79,6	79,4	78,9	79,5
- 45 urte eta gehiago	36,8	36,3	36,1	36,2	36,6	36,5	36,6
Langabezia tasa guztira	3,8	8,1	7,8	8,3	8,7	8,9	9,1
- Gizonak	3,4	8,4	8,0	9,1	8,8	9,1	9,5
- Emakumeak	4,2	7,8	7,6	7,2	8,5	8,6	8,6
- 16 urtetik 24ra	9,9	23,0	20,5	25,3	25,4	24,8	25,0
- 25 urtetik 44ra	4,1	8,9	8,7	8,5	9,6	9,6	9,2
- 45 urte eta gehiago	2,3	4,8	4,5	5,5	4,9	5,6	6,6

Iturria: BJA (Eustat).

BJA inkestaren datuekin jarraituz, lan merkatuan parte hartzen duten lagunen kopurua nabarmen igo da, %1,5 areagotu baitzen, aurreko hiruhilabetean %0,3 murriztu ondoren. Hobekuntza garrantzitsu horren arrazoia, bereziki, gazteen parte hartzea izan da, aurreko tasa negatiboak baztertu eta %2,1 igo baita. Talde horri 45 urtetik gorakoak gehitu zaizkio, aurreko epealdietan bezala, indar gehiagoz hazi direnak (%4,6) izan zirelako. Aurreko hiruhilabetearekin alderatuta, berrikuntza bat hauteman da, gizonen taldea balio positiboetara (%0,8) itzuli baita. Aurreko guztiaren ondorioz, adin eta sexu guztietako partaidetza tasak, inolako salbuespenik gabe, igo ziren aurreko hiruhilabetearen aldean, eta, oro har, aurreko urteetako emaitzak gainditu zituzten.

Enplegua zertxobait igo zenez eta lanpostu baten bila hasi direnen kopurua nabarmen areagotu denez, langabeziak gora egin zuen berriro, 2009ko epealdi beraren aldean %17,7 lagun gehiago lanik gabe zeudelako. Langabeziak eragina izan zuen emakumeengan ere, baina askoz gehiago nabaritu zen gizonen kopuruan. Horren ondorioz, emakumeen langabezia tasa bere horretan geratu zen, baina gizonenak berriro egin zuen gora eta dagoeneko ia puntu oso batean gaititzen du emakumeena.

LANGABEZIAREN BILAKAERA

Mila lagun eta tasak


	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Langabeak BJA inkestaren arabera	38,6	84,2	80,7	85,5	90,4	91,8	95,0
Langabeak BAI inkestaren arabera	68,6	115,6	110,0	120,7	123,1	113,7	109,8
Langabeak INEMen erregistroetan	84,6	120,5	119,0	120,1	127,1	137,0	130,1
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	3,8	8,1	7,8	8,3	8,7	8,9	9,1
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	6,4	11,0	10,5	11,6	11,8	10,9	10,4

Iturria: Eustat, INE eta INEM.


Langabezia tasaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Hala ere, langabeziaren bilakaera adierazitakoa izan zen arren, EAeko langabezia tasa (%9,1) Europako batez bestearen (%9,6) puntu erdi bat beherago kokatu zen, nahiz eta bi lurraldeen arteko aldea zertxobait murriztu den, European estatistika hori oso egonkor dagoelako. Beste aldetik, biztanleria gazteenak arazo larriak ditu EAEn lanpostu bat lortzeko eta bere langabezia tasa %25era handitu zen, Europakoa baino askoz ere altuagoa delarik.

Enplegua erregulatzeko dossierrek bilakaera ona erakutsi zuten berriro, lan merkatuaren hobekuntzaren ondorioz, eta bosgarren hilabetez jarraian 150aren inguruan egonkortsu ziren. Horrek esan nahi du dossier baten eraginpean dauden langileen kopurua oso nabarmen gutxitu dela 2009ko epealdi beraren aldean. Hain zuzen ere, abuztuan, hori baita ezagutarazi den azken hilabetea, 147 dossier baimendu ziren, guztira 2.230 langilerengan eragina izan zutenak, kopuru hori 2009ko abuztuko emaitzaren aldean %3,7ko beherakada delarik. Beste behin, industria izan zen arlo kaltetuena, dossier guztietatik %75 sektore horretakoak izan zirelako. Sektore horren barruan, adar kaltetuena metalurgia izan zen eta ondoren makineriaren fabrikazioa. Are larriagoa da enpresa txikien egoera, hots, 25 langiletara iristen ez diren enpresena. Izan ere, abuztu arte pilatu diren 1.424 dossierretatik 1.102 sozietate horietakoak ziren.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2008	2009	2009			2010		
			II	III	IV	I	II	Abuztua
Dossierren kopurua	496	2.565	770	492	691	683	452	147
Eragindako langileak	12.794	68.722	19.399	10.020	17.658	12.073	7.176	2.230
<i>Dossier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	108	1.170	323	124	144	149	88	169
- Behin-behineko etetea	11.216	65.574	18.719	9.428	17.045	11.434	6.844	1.918
- Kontratua amaitzekoa	1.470	1.978	357	468	469	490	244	143

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


Azkenik, adierazi behar da susperraldia hasi den une honetan mugagabeko enplegua galtzen ari dela. Hain zuzen ere, kontratu finkoa duten soldatapekoen kopurua 17.200 lagunetan gutxitu zen aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean, urte arteko aldakuntza tasa %-2,7ra areagotu zelarik. Aitzitik, egonkortasun txikiagoa duen enpleguak gora egin zuen eta aldi baterako kontratua zuten soldatapekoak 14.000 gehiago ziren, urte arteko tasa %9,8 igo zelarik. Bi bilakaera horien ondorioz, aldibaterakotasun tasa 2008. urtetik berriro ezagutu ez zen maila

batean (%19,9) kokatu zen. Horrek agerian uzten du behar iraunkorrak eduki arren, enpresek ez dutela kontratu mugagabeko langilerik sartzen beren plantilletan.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Kontsumoko prezioek goranzko joerari eutsi zioten bigarren hiruhilekoan eta uztailan 2008ko amaieratik inoiz jaso den gehikuntza tasarik gorena markatu zuen, %1,9an kokatuta, harez geroztik abuztuaren %1,7ra jaisteko. Bilakaera horren atzean, BEZ zergaren igoera dago, tipo orokorra %16tik %18ra eta tipo murriztua %7tik %8ra goratu baitzen uztailaren 1etik aurrera. Horrekin batera, kontsumoak azken hiruhilabeteetan erakutsi duen hobekuntza aipatu behar da. Bi arrazoi horiengatik aurreko hilabeteetan prezioetan hautematen ziren beheranzko presioak arindu dira. Hala eta guztiz ere, gehikuntza neurritsua izan zen, enpresa askok ez dutelako oraindik zergaren igoera azken prezioetara eraman eta Brent motako petrolioaren upela merkatu zelako, apirilaren amaieran ordaintzen ziren 85 dolarretatik abuztuaren bukaeran balio zuen 75 dolarretara, munduko eskariaren bilakaeraz hedatu den ziurgabetasunaren ondorioz.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eurostat eta INE.

Energiako prezioek oraindik inflazio orokorra baldintzatzen duten arren, azken honi egin dioten ekarpena aurreko hilabeteetakoa baino txikiagoa izan da, erregaiek beheranzko joera erakutsi zutelako. Aitzitik, prezioen talde egonkorrenak, hots, azpiko inflazioa delakoak, hazkundeari egin dion ekarpena gero eta handiagoa da.

Hain zuzen ere, azpiko inflazioaren barnean, igoera orokorrak hauteman ziren osagai guztietan. Beste behin, zerbitzuek egin zioten ekarpen handiena inflazioaren gehikuntzari, zazpi hamarren ekarri zizkiotelako, bereziki administrazioaren esku dauden zerbitzuengatik, hala nola trenbidez edo errepidez egiten den garraioa, eta turismoaren gorakadarengatik. Talde horri gehitu behar zaizkio elikagai landuena, otsailean hondoa (%-0,1) jo ondoren goranzko joera hartu baitzuen, eta industriako ondasunena, azken bi hilabeteetan aldakuntza tasa positiboak berreskuratu zituelako, automobilen garestitzearengatik. Aurreko osagaien bilakaeraren ondorioz, azpiko inflazioak goranzko norabidea luzatu zuen laugarren hiru hilekoz jarraian eta %1,1ean kokatu zen, azken hamalau hilabeteetako tasarik gorena baita. Beraz, deflazioaren arriskua urrunago dago, baina prezioen balizko gorakada bat ez da, oraingoz, kezkatu behar den aukera.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2008	2009	2010			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazioa guztira (%100)	4,1	0,3	1,0	1,5	1,7	1,7
Azpiko inflazioa (%83,9)	3,2	1,1	0,2	0,3	1,1	0,9
KPI Landutako elikagaiak (%13,3)	6,6	1,2	0,1	0,7	0,8	0,1
KPI Industriako ondasunak (%28,8)	0,6	-0,9	-1,2	-0,8	0,1	0,1
KPI Zerbitzuak (%41,7)	3,9	2,5	1,1	1,0	1,7	0,7
Hondarreko inflazioa (%16,1)	8,5	-3,6	5,2	7,5	4,9	0,8
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,9)	5,0	0,2	-1,7	0,0	0,7	0,1
KPI Energia (%9,2)	11,6	-7,3	10,6	13,2	8,1	0,7

Iturria: INE.

Lehenago ere aipatua izan denez, hondar inflazioak inflazio orokorrari egin dion ekarpena (0,8 puntu) aurreko hilabeteetakoa baino txikiagoa izan da. Hala ere, energiako ekoizkinen salneurriak berriro goratu ziren, butano gasaren eta gas naturalaren salneurria apirilean igo zelako eta BEZ zerga uztailean goratu zelako. Azkenik, landu gabeko elikagaiek ere ekarpen

positiboa egin zuten, lehenengo aldiz 2009ko erdialdetik, pataten eta fruta freskoen garestitzeagatik.

Indize orokorra osatzen duten taldeen azterketak baieztatzen du BEZaren igoeraren eragina espero zena baino txikiagoa izan zela, hazkunde tasa handienak lehenagotik ere gehikuntza tasa gorenak erakusten zituzten taldeetan (etxebizitzan, garraioan, eta edari alkoholodunak eta tabakoan) gertatu direlako, gainontzeko taldeak tasa neurritsuagoetan geratu ziren bitartean. Beste aldetik, bai garraioaren atalean bai edari alkoholodunak eta tabakoan gehikuntzak aurreko hilabeteetakoak baino txikiagoak izan ziren. Hain zuzen ere, garraioaren tasa %4,7an kokatu zen, erregaien salneurria egonkorragoa izan zelako, eta edari alkoholodunak eta tabakoarena %8,7ra iritsi zen, tabakoaren aurtengo igoera iazkoa baino apalagoa izan zelako. Bitartean, etxebizitzaren tasa aurreko hilabeteetakoak baino altuagoa izan zen, gasaren garestitzearen ondorioz.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2008	2009	2009		2010	
			IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	4,1	0,3	0,5	1,0	1,5	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	6,3	-0,1	-1,3	-2,0	-1,0	-0,2
Edari alkoholodunak eta tabakoa	4,0	8,4	12,1	11,5	12,1	8,7
Jantziak eta oinetakoak	0,7	-1,4	-0,7	-0,7	-0,3	0,0
Etxebizitza	6,4	1,9	0,2	0,6	2,8	3,8
Etxeko hornidura	3,0	1,8	1,1	0,6	0,7	0,5
Medikuntza	-0,1	-0,2	-0,7	-0,4	-0,1	0,3
Garraioa	5,7	-5,3	0,2	6,3	6,6	4,7
Komunikazioak	0,0	-0,6	-0,6	-0,5	-1,2	-0,5
Aisia eta kultura	0,3	0,3	-0,8	-1,5	-1,9	0,0
Irakaskuntza	4,7	4,2	2,2	2,1	2,0	1,9
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	2,4	1,7	1,3	1,4	1,8
Besteak	3,4	2,5	1,8	1,4	1,8	2,3

Iturria: INE.

Aitzitik, komunikazioen atalak (%-0,5) beherantz bultzatu zuen indize orokorra, telefono zerbitzuen merkatzeagatik. Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%-0,2) ere tasa negatibotan kokatu ziren, nahiz eta bere osagaietako batek hazkunde garrantzitsuak izan

zituen. Gutxi hazteko joera begi bistakoa da aisialdia eta kulturaren (%0,0) ere, tasa negatiboak atzean utzi baditu ere, bidaia antolatuen portaeragatik.

IPRIk, berriz, goranzko norabideari jarraipena eman zion, baina abuztuan joera hori bertan behera geratu zen, lehen motelaldia eraginez, energiaren portaerarengatik, aurreko hilabeteetan baino gutxiago gehitu zelako. Gainontzeko taldeek urte arteko aldakuntza tasak areagotu zituzten, nahiz eta haietako batzuk oraindik oso maila apaletan kokatuta dauden. Hain zuzen ere, kontsumorako ondasunek gorakada txikia (%0,7) izan zuten, hainbat hiruhilekotan jaitsierak jaso eta gero. Ekipamendurako ondasunek ere %1,0tik beherako balioak izan zituzten eta bitarteko ondasunek, lehengaiei lotuago baitaude, ekoizkin horien eskariak bizi duen gehikuntza bizia hauteman zuten.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010	
			IV	I	II	Abuztua
Indize orokorra	6,6	-6,2	-5,0	0,5	4,0	4,4
Kontsumoko ondasunak	4,4	0,0	-1,1	-1,1	-0,3	0,7
- Kontsumo iraunkorrak	3,1	0,1	-0,8	-1,4	-0,9	-0,3
- Kontsumo iragankorrak	5,0	-0,1	-1,3	-1,1	0,0	1,1
Ekipamendurako ondasunak	3,0	1,4	0,6	0,3	0,2	0,6
Bitarteko ondasunak	4,2	-7,5	-8,3	-2,6	3,7	5,6
Energia	20,0	-16,6	-6,2	10,8	14,4	9,9

Iturria: Eustat.

Lan kostuek moteltzeko joera luzatu zuten bigarren hiruhilekoan eta %1,5ean kokatu ziren, hain zuzen ere inflazioak epealdi horretan izan zuen maila berean eta adierazleak berak aurreko hiruhilekoetan izan zuen balioen azpian. Urte arteko gehikuntzaren zati handiena soldata kostuek (%2,7) eragin zuten, nagusiki aparteko orduen ordainketagatik. Soldatakoak ez diren kostuak, ordea, %2,0 murriztu ziren, gizarte kotizazioak igo ziren arren. Jaitsiera horren arrazoia enpleguaren bilakaera hobea da, zeren eta aurreko epealdiak alderatuta iraizteen kostuak askoz ere txikiagoak dira gaur egun. Enpleguaren doikuntzak egutegi ezberdina izan du arlo bakoitzean. Izan ere, eraikuntza izan zen lehena kalte ordainei aurre egiten, baina une hauetan aldakuntza tasa negatiboa %-1,5 jasotzen du. Aitzitik, industriak denbora luzeagoa behar izan du langileen kopurua egokitzeko eta, horren ondorioz, 2010eko bigarren hiruhilekoan kostuak %3,7 areagotu zaizkio.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Kostu guztiak	4,7	2,8	3,8	0,5	2,5	1,7	1,5
- Soldata kostuak	5,7	2,8	4,1	0,6	2,2	2,1	2,7
- Bestelako kostuak	1,6	2,8	3,1	0,1	3,6	0,6	-2,0
Kostu osoa industrian	-	0,8	0,1	-0,9	2,1	0,8	3,7
Kostu osoa eraikuntzan	-	0,0	3,7	-1,0	-3,1	1,2	-1,5
Kostu osoa zerbitzuetan	-	4,5	5,5	1,9	4,1	2,4	1,3

Iturria: INE.

Azkenik, lan hitzarmenetan adostutako soldatak %1,6 igo ziren lehen sei hilabeteetan, urte hasierako moteltze bizia finkatuz eta aurreko urteetan kontsumoko prezioen eta negozioazio kolektiboan adostutako soldaten arteko tarte zabala desagerraraziz. Neurri handi batean, soldaten moteltzea 2009. urtean lortu zen inflazioaren kontrolaren ondorio zuzena da, aurtengo negozioaziora igaro baita. Hala ere, badaude beste zio batzuk ere soldatak ekonomiaren une zailari erantzun ari direla pentsatzeko. Esate baterako, urte honetan zehar sinatu diren lan hitzarmenek gaur egun indarrean dauden baina aurreko urteetan sinatu zirenek baino igoera txikiagoa onartu dute. Igoeren goiko muga %1ean kokatzen zuten negozioazio kolektiboko akordioek ere lagundu dute moteltzeko joera horretan. Beste aldetik, funtzionarioen soldaten jaitsierak ere eragina izan dezake arlo pribatuan datozen hilabeteetan onartuko diren hitzarmenetan.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2006	2007	2008	2009	2010(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,9	4,2	5,0	2,7	1,6
- Urtean zehar sinatutakoak	5,0	4,1	4,8	2,8	1,3
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,0	4,2	5,2	2,8	1,7
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,2	4,1	2,6	1,6

(*) 2010eko abuztua arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Aurtengo ekitaldiaren lehen sei hilabeteetan, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien finantzaz bestelako eragiketen saldoa %32,0 gutxitu zen, 2009. urtean 1.248 milioi euro izatetik aurtengo 849 milioietara igarota. Zerga bidezko diru sarreren gehikuntza eta aurrekontuak doitzeko hartu berri diren neurriak daude saldoaren hobekuntza horren atzean.

Hain zuzen ere, gastu arrunten kapituluak bilakaera onena erakutsi zuen, guztira %2,1 murriztu zelako. Pentsatzekoa da bilakaera hori ondorengo hilabeteetan areagotuko dela, herstura neurri zenbait aurtengo bigarren erdian indarrean sartu direlako. Multzo hori osatzen duten atalen artean, langileen gastuen bilakaera nabarmendu behar da, gehitu baziren ere, aurreko urteko epe berean baino askoz ere gutxiago hazi zirelako (%1,3 iazko %6,8aren aldean). Are gehiago, soldaten gastuaren apaltzea aurtengo bigarren seihilekoan gehiago nabaritutako dela aurreikusten da, funtzionarioen nominen jaitsiera epealdi horretan ezarri zelako.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK. Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak (2010eko urtariletik ekainera)

Mila eurotan

	2009	2010	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	5.158.996	5.361.165	3,9
2. GASTU ARRUNTAK	5.843.556	5.718.341	-2,1
Langileen gastuak	1.131.830	1.147.017	1,3
Funtzionamenduko gastuak	1.598.942	1.656.973	3,6
Finantza gastuak	23.711	25.244	6,5
Transferentzia arruntak	3.089.073	2.889.107	-6,5
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	-684.560	-357.176	47,8
4. KAPITALEKO SARRERAK	41.855	64.204	53,4
5. KAPITALEKO GASTUAK	605.269	556.072	-8,1
Inbertsio errealak	259.211	221.303	-14,6
Kapitaleko transferentziak	346.058	334.769	-3,3
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-563.414	-491.868	12,7
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA (3+6)	-1.247.974	-849.044	32,0

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Finantza gastuak, berriz, 25 milioi eurora iritsi ziren, urte arteko aldakuntza %6,5 izan zelarik. Gorakada hori Eusko Jaurlaritzak, defizita konpentsatzeko, iazko amaieran eta 2010eko hilabeteetan jaulki zuen zor publikoaren igoeraren ondorio zuzena da. Azkenik, inbertsioen atalak jaso du beherakadarik handiena, ekonomiaren krisitik eratorritako aurrekontu murrizketen ondorioz. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek, termino bateratuetan, 556 milioi euro bideratu zituzten zeregin horietarako, aurreko urteko diru kopurua %8,1 gutxituz.

Lehenago ere adierazi denez, itunpeko zergen diru bilketa, oro har, oso bilakaera ona erakusten ari da. Hain zuzen ere, urtariletik abuztura bitarteko epealdian urte arteko gehikuntza tasa %10,6ra iritsi da. Diru bilketaren hobekuntza zeharkako zergetatik etorri da (%26,7 hazi dira), zuzeneko zergek aurreko urteko balioak berdintzea lortu ez duten bitartean eta %3,4 gutxitu dute diru bilketa.

Zuzeneko zergen artean, PFEZ zergaren bultzada azpimarratu behar da, 2009ko epealdiaren diru bilketa %4,2 areagotu duelako. Gehikuntza hori azaltzen duten arrazoiaren artean, kapitaleko errenten atxikipenen tipoa igo izana eta 400 euroko kenkaria desagertu izana aipatu behar dira. Azken neurri hori lan errendimenduen atxikipenetan dagoeneko islatu da, %3,0 igo delako.

Zuzeneko zergen artean garrantzia duen besteak, hots, sozietateen gaineko zergak, oso urte arteko tasa negatiboak jasotzen (%-16,7) jarraitzen du, enpresak nozitzen ari diren zailtasunen adierazgarri. Halaber, zergaren tipo efektiboa tipo orokorra den %28tik behera jaitsi zen, enpresen mozkinak gutxi hazi zirelako eta legeak kenkari asko eskaintzen dituelako. Abuztu arteko emaitzak ikusita, 2010. urtean foru aldundiek diru gehiago jasoko dute zerga berezien bitartez sozietateen gaineko zergen bitartez baino. Beraz, azken honek diru gehien biltzen duen hirugarren zerga izateari utziko dio.

Zeharkako zergen artean, BEZ zergak erakutsi zuen bizitasun handiena, %45,2ko hazkunde tasa bizia lortuta, urteko itzulketak jaitsi zirelako eta 2009. urtean zehar onartu ziren ordainketen atzerapenak orain jasotzen ari direlako. Aurreko bi arrazoiei gehitu behar zaie uztailaren 1ean indarrean sartu zen zergaren igoera saihesteko izan zitekeen kontsumo aurrerapenaren eragin positiboa, eta baita data horretatik aurrera tipo altuago bat ordaindu beharrak eduki zezakeen eragina ere.

Azkenik, zerga bereziek hazkunde tasa moteldu zuten eta lehen zortzi hilabeterako urte arteko aldakuntza tasa %4,3an kokatu zen. Batez ere, hidrokarburoen moteltzea hauteman zen. Hala

eta guztiz ere, multzo horretan biltzen diren zerga guztiek tasa positiboak jaso zituzten, salbuespen bakarra alkoholaren gaineko zerga berezia delarik. Azpimarratzekoa da tabakoaren eta elektrizitatearen gorakada, bi produktu horien prezioak igo zirelako, kontsumo fisikoen jaitsiera konpentsatuz.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2010eko urtariletik abuztura)

Mila euro

ZERGA	Diru bilketa			
	2009	2010	Aurrekon. %	10/09 aldak. %
PFEZ	2.295.505	2.390.856	56,0	4,2
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	2.774.474	2.857.182	65,2	3,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	186.222	160.989	55,2	-13,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	57.027	57.958	67,7	1,6
- Ondare irabazien atxikipenak	13.189	12.565	48,2	-4,7
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	122.314	120.270	73,8	-1,7
- Kuota diferentzial garbia	-857.720	-818.109	119,8	4,6
Sozietateen gaineko zerga	1.067.267	888.937	83,1	-16,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	186.222	160.989	55,2	-13,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	57.027	57.958	67,7	1,6
- Ondare irabazien atxikipenak	13.189	12.565	48,2	-4,7
- Kuota diferentzial garbia	810.830	657.424	98,7	-18,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	59.631	73.977	70,0	24,1
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	48.040	44.672	55,6	-7,0
Ondarearen gaineko zerga	48.628	2.452	5,0	-95,0
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	3.519.071	3.400.894	61,0	-3,4
BEZaren bertoko kudeaketa	1.567.766	2.276.470	75,9	45,2
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	104.092	105.928	63,6	1,8
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	61.567	56.388	56,9	-8,4
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	22.820	25.007	66,8	9,6
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	836.851	872.910	55,3	4,3
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	37.005	36.876	71,1	-0,3
Aseguru sarien gaineko zerga	44.546	46.659	61,7	4,7
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.674.646	3.420.238	68,3	27,9
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	47.782	63.679	70,4	33,3
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	6.241.499	6.884.811	64,5	10,3
BEZaren doikuntza	404.396	482.895	58,1	19,4
Zerga berezien doikuntza	-76.785	-100.147	78,4	-30,4
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	6.569.110	7.267.559	63,9	10,6

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

Aurtengo bigarren hiruhilekoan, finantza arloko zurrunbiloek intentsitate aparta izan zuten. Greziako zerga arazoetatik eratorri zen kezka zaurgarritasun handia zuten beste ekonomia batzuetara igaro zen eta hortik bankuen arteko merkatuetara hedatu, baina baita burtsen eta euroaren kotizazioetara ere. Europako diru bakarrak nabarmen galdu zuen bere balioa epealdi horretan.


Egoeraren larritasunak berehalako ekintzak eskatzen zizkien europar gobernuei eremuaren egonkortasuna ziurtatzeko. Egonkortasunerako europar mekanismoa sortu zen eta, Nazioarteko Diru Funtzarekin batera, likidezia arazoak zituzten herrialdeei 750.000 milioi euro eskaini zizkien. Harez geroztik, hainbat estatuk defizit publikoa gutxitzeko politikak iragarri dituzte. Irlanda, Espainia, Frantzia eta Alemania finantza publikoak onbideratzeko irizpideak eta egitasmoak argitaratu zituzten lehenak izan ziren. Halaber, zor publikoko hainbat jaulkipen kokatu ziren, eta esfortzu probak egin ziren Europako finantza sistemaren osasuna frogatzeko. Neurri horien guztien egikaritzak eta abiarazteak finantza merkatuetako gorabeherak eta tentsioak, ekainaren erdialdean, baina are indar handiagoz uztailetik aurrera, baretzea ahalbidetu zuten, behin europar banku eta kutxa gehienek nahiko kaudimena zutela jakinarazi ondoren.

Finantza arloan sortu ziren arazoen aurrean, banku zentral nagusiek malgutasun garrantzitsua erakutsi zuten beren politikak orientatzeko eta martxan jartzeko. Izan ere, Europako Banku Zentralak zor publikoa bigarren merkatuetan erosteko egitasmoa bertan behera uztea erabaki zuen, Europako finantza erakundeek egin zizkien esfortzu probetan lortutako emaitza onen ondoren bizi zen nolabaiteko egonkortasunean oinarrituta. Aitzitik, Erreserba Federalak neurri gehiago hartu zituen eta hipoteka bonoen epeak betetzetik lortutako zenbatekoa zor publikoa erosteko erabili zuen. Edozein modutan, bi erakundeek erabaki zuten esku-hartzeko interes tasak bere horretan uztea, Europako Banku Zentralak %1ean eta Fedek %0 eta %0,25arteko urkilan.


Japoniako Bankuak ez zuen inolako aldaketarik egin herrialde hartako interes tasa ofizialetan eta %0,1ean utzi zituen. Orobat, iraileko bileran moneta politika malgutzeko neurri gehiago onartu zituen, yenaren balio irabazia galgatzeko. Ingalaterrako Bankuak ere ez zuen esku-hartzeko tasa aldatu eta %0,5ean utzi du 2009ko martxotik. Orobat, aktiboak erosteko egitasmoari eutsi zion ekonomia sustatzeko. Egitasmo horren diru kopurua 200.000 milioi liberakoa da.

**Banku zentralerako erreferentzia tasak
Ehunekoak**


AEB




Eurogunea



Erresuma Batua



Japonia




Iturria: Espainiako Bankua.

Europako txanponak 2010eko hasieratik balioa galdu duen arren, Euroguneko herrialde batzuetako zerga eta ekonomia aurreikuspenek eragin dituzten ziurgabetasuna eta kezkek arriskua ez onartzeko joera hedatu du inbertitzaileen artean eta horrek areagotu zuen euroaren ahultasuna. Hain zuzen ere, ekainean euroaren balioa ez zen 1,20 dolarretara iristen, martxoaren amaieran zeukan kotizazioaren aldean ia %10eko galera delarik eta 2009ko batez besteko trukearen aldean ia %17 galduta. Beheranzko joera horrek abuztuaren erdialdea arte iraun zuen. Garai hartan, AEBetako datu okerragoak argitaratu ziren eta herrialde horretako

suspertze erritmoan moteltzeko zantzu batzuk agertu ziren. Horren ondorioz, euroak galdutakoaren zati bat berreskuratu zuen.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko



Iturria : Espainiako Bankua.

2009. urte osoan zehar euroak balioa irabazi zuen yenaren aldean, baina finantza merkatuetan zabaldu zen ziurgabetasunak Japoniako diruaren alde jokatu zuen, babes txanpon gisa. Orobat, carry-trade eragiketak izugarri areagotu ziren. Bi arrazoiengatik yenaren balioa azken urteetako handiena izan da. Hain zuzen ere, irailaren 1ean euroa 107,5 yenen truke saltzen zen, 2009ko batez bestearen %17,5 beherago. Dolarra, berriz, 82 yenetara jaitsi zen, hamabost urteko baliorik apalena delarik. Yenaren balio irabazia hain bizia izan zen ezen herrialde hartako

esportazioak kaltetzen hasi baitzen. Hori dela eta, Japoniako gobernua, lehenengo aldiz sei urte eta erdiko epealdian, dibisen merkatuan esku-hartzera behartuta egon zen, bere diruaren balioa galgatzeko.

Azkenik, Suitzako frankoaren onerako izan zen nazioarteko inbertitzaileen joera aktibo seguruagoak bilatzen hasi zirenean. Zehazkiago adierazita, euroa oso nabarmen ahuldu zen Suitzako frankoaren aldean, eta 1,30 frankotan kotizatzen iritsi zen, gutxienez 1979. urtetik izan duen kotizaziorik txikiena baita.

Aurtengo bigarren hiruhilekoan ekonomiaren iraunkortasunaz eragin zen kezkak galera garrantzitsuak utzi zituen munduko burtsetan. AEBetako indizeek, urte hasieran irabazi handiak pilatu zituzten arren, %10aren inguruko galerak izan zituzten bigarren hiruhilekoan. Are gehiago galdu zuten Europako burtsek, beherakada %12etik gorakoa izan zelako. Gorakadak eta beherakadak etengabe tartekatzen ziren eta ekainaren hasieran 2009ko hastapenetatik ikusi gabeak ziren balioak jaso ziren.


Uztailean, Europar Batasuneko kreditu erakundeek egin zituzten esfortzu proben emaitza onak, finantza araudiaren aldatzeko proposamenek eta enpresa batzuen emaitza onak argitaratu izanak gorantz bultzatu zituzten Atlantikoaren bi aldeetako burtsen irabaziak. Hala eta guztiz ere, susperraldi horretan gorabehera handiko uneak ere bizi ziren. Izan ere, errenta aldakorreko merkatuek gorabeherak izan zituzten argitaratu zen datu ekonomiko bakoitzarekin, eta abuztuko datu makroekonomikoak ezagutu ondoren hauteman zen moteltze arinak susperraldiaren sendotasunaz dauden zalantzak areagotu zituen, burtsak berriro beherantz bultzatuz, nahiz eta irailaren hasieran jaitsiera hori zerbait zuzendu zen. Dena dela, burtsa nagusiek %5,0aren inguruko beherakada nozitu dute urte hasieratik.

Urtebete baterako euriborrrak goranzko joera hartu zuen apirilean eta puntu gorena uztailean markatu zuen, 19 egunetan gorakada etengabeak jaso zituelako. Abuztuan, joera hori apaltzea lortu zen, baina ez zen nahiko izan hipoteken igoera saihesteko, 2008ko azarotik lehen aldiz. Gorakada horren garrantzia ez da hipoteken igoera, nahiko arina izan delako, joera aldaketa baizik, zeren eta euriborrrari geratzen zaion ibilbidea goranzkoa dela adierazten baitu. Hala eta guztiz ere, espero diren gehikuntzak txikiak dira, gorakada handiak eragin ditzaketen bi alderdiak, hots, Europako Banku Zentralak erreferentzia tasa igotzea edo bankuen arteko merkatuaren tentsioa areagotzea, epe laburrean ez direlako gertatuko, EBZk berak adierazi duenez.


Interes tasen bilakaera

%

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra




Iturria: Espainiako Bankua.

Kreditu pribatuek hazkunde positiboak berreskuratzea lortu zuten, finantzaziorako eskaintzen baldintzak zertxobait gogortu ziren arren, bereziki merkatuetara iristea zailagoa zelako. Prezioen doikuntza, BEZ zergaren gehikuntza (bizitegi berrietan eragin zuzena baitu) eta PFEZ zergan hipoteka bat edukitzeagatik dagoen kenkaria etorkizunean desagertzea dira kontsumitzaileak etxebizitza bat erostera, eta aldi berean hipoteka mailegu berriak hartzera, bultzatu zuten arrazoietako batzuk. Kontsumorako eta enpresak finantzatzeko kredituen eskariak, berriz, ahul jarraitu zuen eta aurreko hiruhilekoan jasotako mailatik hurbil, baina beste atzerakadarik erakutsi gabe. Horregatik guztiagatik, eta hipotekek kreditu pribatuen multzoan duten pisu garrantzitsuari esker (%60 inguru biltzen dutela estimatu da), kredituak areagotu ziren eta %0,9 hazi. Tasa hori oso txikia da historian zehar izan duen igoerekin alderatuta, baina garrantzitsua da hazkunde positiboak berreskuratu direlako.


Azken bi hiruhilekoetan, berankortasunak moteltzeko joera argia hartu zuen eta baita nolabaiteko geldotzea ere, hiruhileko batetik hurrengora hamarren erdi bat baino igo ez zelako. Hala ere, 2010eko bigarren laurdenean, berankortasuneko ratioak 2009ko erdialdetik inoiz jaso duen gehikuntzarik handiena izan zuen. Hain zuzen ere, berankortasuna %2,97 arte hazi zen martxoko %2,81etik. Tasa hori oraindik apala den arren, are gehiago Espainiako ekonomian dagoen %5,4arekin alderatzen bada, azken urteetako mailarik gorena da. Estaldura orokorreko tasak ere nolabaiteko apaltzea izan zuen eta %82,72ra jaitsi zen. Dena dela, etorkizunean ordaindu gabe geratuko direnak estaltzeko nahiko da oraindik.

Kreditu eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, gordailu pribatuek krisia hasi zenetik ezagutu duten beheranzko joerari eutsi zioten eta %2,7 baino ez ziren hazi, aurreko hiruhilekoan baino ia bi puntu gutxiago. Azken hilabeteetako arazoek likidezaren aukera areagotu dute EAEko eragileengan. Hori dela eta, aurrezki eta ageriko kontuetan ezarritako dirua areagotu da. Aitzitik, epe luzerako kontuak eta osagai aldakorra dutenetan diru gutxiago jarri da.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Oro har, 2010eko lehen erdialdean, munduko susperraldia garapen bidean dauden Asiako herrialdeek markatu dute. Urteko bigarren zatirako aurreikuspenek Txina eta India kokatzen dute hazkunde handienak izango dituzten herrialdeen zerrendan, eta haiekin batera Brasil, Taiwan eta Hego Korea bezalako herrialdeak. Izan ere, Asiako eta Amerikako eremuak munduko susperraldiaren buruan egongo dira 2010. urtean, oso hazkunde tasa sendoak jasota. Aitzitik, Europako bilakaera zalantza betetik dago eta etorkizunean ekonomiaren hazkundera nondik nora joango den ez da garbi ikusten. Consensus Forecast osatzen duten adituen ustez, munduko ekonomia %3,7 haziko da 2010ean eta %3,0aren inguruan kokatuko da 2011n.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa


	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
Munduko ekonomia	-1,8	3,7	3,1	1,3	2,6	2,5
AEB	-2,6	2,7	2,4	-0,3	1,6	1,4
Kanada	-2,5	3,1	2,5	0,3	1,7	2,1
Japonia	-5,2	3,0	1,3	-1,4	-0,9	-0,3
Eurogunea	-4,0	1,6	1,4	0,3	1,5	1,6
Europar Batasuna	-4,1	1,5	1,5	0,7	1,7	1,7
Alemania	-4,7	3,2	1,9	0,4	1,1	1,4
Espainia	-3,7	-0,4	0,6	-0,3	1,6	1,4
Frantzia	-2,5	1,5	1,5	0,1	1,6	1,5
Herbehereak	-3,9	1,6	1,2	1,2	1,3	1,4
Italia	-5,1	1,0	1,0	0,8	1,5	1,8
Erresuma Batua	-4,9	1,5	2,1	2,2	3,1	2,6
Asia eta Ozeano Barea	1,9	6,3	5,1	0,8	2,2	2,3
Ekialdeko Europa	-5,2	3,8	3,9	6,3	5,9	5,7
Amerika Latinoa	-1,7	5,1	3,9	5,7	7,7	7,1

Iturria: Consensus Forecast (2010eko iraila).

Garapen bidean dauden Asiako ekonomiak munduko susperraldia gidatzen egon dira eta paper horretan jarraituko dute, baina zertxobait gutxiago haziko dira 2010eko bigarren zatian eta 2011n. Arrakastaren giltza barne eskariaren eta esportazioen susperraldian egon da. Txina eta India munduko ekonomiaren aitzindariak izango dira, baina Japonia atzean geratuko dela aurreikusten da.

BPGren bilakaera eremuka


Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : NDF. 2010eko urriko aurreikuspenak.

Aurreikusten den epealdi horretan, Japoniak oztopo asko izango ditu bere ekonomia hobetzeko. Herrialde horrek ziurgabetasun handiari aurre egin beharko dio hainbat gaitan, hala nola zor publikoan, deflazioan eta txanponaren sendotasunean. Aurrekontuen defizit handia zuzentzeko zerga politika murriztaile batek ekonomiaren hazkundera ahulduko du 2011. urtean. Analisisile batzuek uste dute Japoniako susperraldia bereziki ezegonkorra izan daitekeela, herrialde horretako egiturazko arazoak konpontzeko ezarri diren politiken ondorioz. Edozein modutan, 2010eko bigarren zatian eta 2011n lor daitekeen hobekuntza kanpo eskariaren sendotasunak, alde batetik, eta kontsumoaren eta inbertsioaren bultzadak, beste aldetik, baldintzatuko dute. Japoniako ekonomia %3,0aren inguruan haziko da 2010ean eta aldakuntza tasa %1,3ra jaitsiko da 2011n, Consensus Forecastek egin dituen estimazioen arabera.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Txinak tasa bizitan hazten jarraituko du, bereziki esportazioen sendotasunari esker, batez ere garapen bidean dauden Asiako ekonomietara zuzendutakoak. Hala ere, barne eskariak ekarpen garrantzitsua egingo dio hazkunde orokorrari datozen epealdietan. Dena dela, Txinako ekonomian ere kezka handiak daude burbuilak sortzeak merkatuetan izan dezakeen eragin negatiboarengatik. Bai 2010. urterako bai 2011. urterako hazkunde tasa %10,0tik hurbil egongo dela aurreikusi da.

Indian, 2010eko hazkundearen bultzagile nagusietako bat barne kontsumoa izango da, azpiegitura publikoaren gastuarekin batera. Urte hauetarako igurikimenak esportazioen eta

atzerriko inbertsio zuzenaren sendotasunean ere oinarrituko da, nekazaritzaren hobekuntza ahaztu gabe. Aurreikuspen baikor hauek mehatxatu dezaketen arrisku batzuk ere badaude. Esate baterako, montzoien beste garai txar batek edo aurrekontuen defizit altua murrizteko ahaleginek espero diren hazkunde tasa horiek murriztu dezakete. Inflazioaren arriskuak Indiako banku zentrala interes tasak igotzera behartu dezake datozen epealdietan. Beste aldetik, errupiak indarra irabaziko du interes tasen igoeraren ondorioz, hazkunde garrantzitsuarengatik eta kapitalen etorreragatik. NDFk %9,7an kokatu du Indiako hazkunde 2010ean eta %8,4an 2011n.

Ekonomia garatuei dagokienez, 2010eko bigarren zatirako eta 2011rako dagoen zailtasuna handiena zerga pizgarrien politikarik gabe nola erantzun duten jakitea da. Kezka nagusia arlo pribatuan dago, langabezia tasa altuek eta kreditu sistemaren zurruntasunak oztopo garrantzitsuak direlako suspertzeko bidean. Beste aldetik, gobernuak defizit publikoa doitzeko ahaleginak egiten ari dira eta zorpetze tasak egonkortu nahi dute. Politika horiek, munduko ekonomiak ahultasuneko zantzu asko erakusten duen testuinguru batean, gastuaren bultzada oso nabarmen murriztu dezakete eta ekonomiaren susperraldiaren abiadura galgatu. Kasu txarrean, atzeraldi bikoitza eragin dezake.

AEBetarako oinarritzko aurreikuspenak susperraldi neurritsua iragartzen du 2010 eta 2011 urteetarako. Kontsumoan eginiko gastuak ziurtatuta daude hedatze hori lortzeko. Automobilarekin eta etxebizitzarekin lotutako erosketak areagotuko dira, baina maila historikoki apaletan jarraituko dute. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa bizkortuz joango da ekonomiaren jardura hobetuko den heinean. Ekonomia pizteko egitasmo jakin batzuei esker, gastu federala nabarmen haziko da eta tokiko gastuan espero den ahultasuna konpentsatzen lagunduko du. Lan merkatuari dagokionez, 2010ean eta 2011n langabezia handia izango dela aurreikusten da. Aitzitik, inflazioa ez da arazoa izango aurreikusi den epealdi horretan. Hala eta guztiz ere, estatubatuar ekonomiarentzat egin diren hazkunde aurreikuspenak %2,7an eta %2,4an kokatzen dira, hurrenez hurren, 2010erako eta 2011rako.

Europar Batasunaren susperraldia astiro eta erritmo ahuletan gauzatuko dela aurreikusten da. Zor publikoaren krisiaren ondoren, zerga politikaren norabidea kontinente osoan aldatu da. Europako herrialde askok herresturako egitasmo garrantzitsuak onartu dituzte aurrekontuetan kontu publikoak onbideratzeko, baina ekonomia osoaren hazkunde murriztuko dute. Europako susperraldiaren bultzagile nagusia Alemania izango da. Herrialde horretako arrakasta kanpo arloaren sendotasunean eta kontsumo pribatua bizkortzeko beharrezkoa den lan merkatuaren hobekuntzan oinarrituko da. Eskariaren osagai horiek kontsumo publikoaren murrizketa konpentsatu beharko dute. Interes tasa apalek Europako ekonomiaren hazkunde lagunduko dute. Inflazioan tentsiorik espero ez denez, moneta agintariek ez dituzte interes tasak igoko epe laburrean eta Europako ekonomia ahula bultzatzea izango du lehentasuna.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2010eko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoen eta bestean	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
AFI	-0,3	0,4	1,4	0,8	0,2	-0,9	-7,1	-2,8	-10,5	-6,3	4,5	3,3
BBVA	-0,5	0,7	0,9	0,6	0,3	0,1	-8,2	-2,7	-10,4	-4,0	0,2	0,7
Caja Madrid	-0,3	0,4	0,7	0,0	-1,0	-2,3	-7,6	-2,2	-10,9	-4,0	2,3	0,9
Cataluyacaixa	-0,3	0,7	1,2	0,5	-0,8	-1,7	-6,5	0,2	-10,1	-2,1	2,7	2,6
Cemex	-0,8	0,0	0,2	0,7	-0,8	-2,5	-7,7	-2,4	-12,0	-6,8	2,8	4,4
CEEM-URJC	-0,5	0,5	0,2	0,7	-0,7	-2,2	-7,6	-2,1	-9,5	-4,5	-1,0	3,0
CEPREDE-UAM	-0,6	0,5	0,3	0,3	0,5	0,5	-7,5	-1,1	-10,4	-4,4	1,4	4,9
FUNCAS	-0,4	0,4	1,2	0,5	-0,4	-1,8	-7,3	-3,1	-10,8	-6,8	3,4	2,0
ICAE-UCM	-0,4	0,5	1,0	0,6	-0,3	-1,5	-7,1	-2,2	-10,2	-6,0	3,2	4,0
IEE	-0,9	0,5	-0,4	0,7	-1,0	-1,0	-7,0	-1,9	-10,0	-5,0	-2,0	3,0
IFL-UC3M	-0,3	0,3	1,3	0,3	0,0	0,2	-7,1	-3,2	-10,4	-5,6	3,6	5,3
Intermoney	0,0	1,2	1,8	2,1	0,3	-0,6	-7,1	-1,4	-10,6	-3,8	4,5	3,9
La Caixa	-0,3	0,7	0,4	0,7	-0,2	-1,0	-6,6	-0,7	-10,0	-3,9	3,7	6,3
Repsol	-0,4	0,4	1,3	0,9	0,1	-0,4	-6,7	-2,3	-10,7	-6,0	5,9	6,7
Santander	-0,3	0,8	1,2	0,8	0,2	-0,4	-6,9	-3,7	-9,8	-7,0	4,0	3,1
Solchaga Recio	-0,3	0,8	1,3	1,2	-0,4	-1,5	-7,0	-1,8	-10,3	-5,0	2,7	3,5
Batez bestea	-0,4	0,6	0,9	0,7	-0,3	-1,1	-7,2	-2,1	-10,4	-5,1	2,6	3,6
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2010-09)	-0,3	1,3	0,5	1,8	0,6	-1,6	-8,5	-1,5	-11,7	-4,5	1,8	4,2
Esp. Bankua (2010-03)	-0,4	0,8	0,2	1,0	1,2	-0,2	-9,8	-3,5	-12,7	-7,2	-3,2	1,1
E. Batzord. (2010-09)	-0,3	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
NDF (2010-07)	-0,4	0,6	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2010-05)	-0,2	0,9	0,5	1,0	-0,8	-1,0	-5,5	-1,5	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2010eko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
AFI	-0,9	-0,4	8,9	4,5	5,8	1,4	1,6	1,4	-2,4	-0,3	20,2	20,9
BBVA	-1,4	-0,3	8,6	7,3	4,6	2,6	1,6	1,4	-2,7	-0,5	19,6	19,4
Caja Madrid	-1,5	-0,9	8,0	6,3	2,5	1,3	1,7	1,4	-2,4	-0,8	20,2	20,5
Catalunyacaixa	-1,0	0,1	9,5	4,8	6,0	2,7	1,6	1,4	---	---	19,8	19,7
Cemex	-1,9	-0,7	6,8	3,3	2,0	0,9	1,6	1,3	-2,8	-0,1	20,5	20,0
CEEM-URJC	-1,9	-0,6	9,3	6,0	3,0	2,1	1,6	1,3	-2,2	0,1	19,7	20,0
CEPREDE-UAM	-1,4	0,2	2,1	1,8	5,3	1,8	0,6	1,4	-2,2	-0,3	19,9	20,1
FUNCAS	-1,0	-0,8	9,1	6,3	5,8	1,3	1,7	1,5	-2,3	-0,8	20,0	20,3
ICAE-UCM	-1,0	-0,6	8,7	4,5	5,4	1,5	1,6	1,7	-2,4	-0,7	20,0	20,2
IEE	-2,0	-0,3	7,0	5,5	2,0	2,0	1,6	1,6	-2,2	-0,5	20,1	20,3
IFL-UC3M	-0,9	-0,7	8,5	3,7	5,2	0,0	1,7	1,3	-2,2	-0,3	19,9	20,4
Intermoney	-0,5	0,8	8,6	4,6	6,0	2,8	1,4	1,3	-2,5	-0,2	19,8	18,7
La Caixa	-1,4	0,0	10,3	8,6	5,2	5,6	1,7	1,4	-2,4	-0,4	19,8	20,0
Repsol	-0,8	-0,1	8,4	6,1	6,5	4,1	1,7	1,6	-2,3	-0,6	20,1	20,0
Santander	-0,9	-0,4	8,3	7,0	5,0	2,1	1,7	1,7	-2,4	0,1	19,9	19,9
Solchaga Recio	-0,9	-0,5	9,0	6,0	6,0	1,8	1,6	1,4	-2,0	0,2	19,5	19,2
Batez bestea	-1,2	-0,3	8,2	5,4	4,8	2,1	1,6	1,4	-2,4	-0,3	19,9	20,0
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2010-09)	-1,6	0,4	9,3	6,4	3,3	2,9	---	---	-2,2	0,3	---	---
Esp. Bankua (2010-03)	-1,9	-0,3	5,0	4,8	-1,5	0,7	1,1	1,1	-2,6	-0,3	19,4	19,7
E. Batzord. (2010-09)	---	---	---	---	---	---	1,6	---	---	---	---	---
NDF (2010-07)	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2010-05)	-1,1	0,0	13,0	12,4	8,2	8,4	1,4	0,6	---	---	19,1	18,2

Iturria: Funcas.



Espainiako ekonomiak arazo handiak ditu eta horrek ere Europako ekonomiaren etorkizunari eragingo dio. Espainiak Eurogunearen langabezia tasa altuena dauka eta 2008ko finantza krisia hasi zenetik ezagutu duen narriadura konpontzeko zailtasun handienak dituzten herrialdeetako bat da. Hain zuzen ere, 2010. urtean eta europar ekonomia nagusien artean, hazkunde tasa

negatiboa jasoko duen bakarra izango da (%-0,3 NDFen arabera, %-0,4 Consensus Forecasten eta Funcasen ustez, eta %-0,6 Ceprederen aurreikuspenen). 2011. urterako, adituek aldakuntza tasa positiboak iragartzen dituzte ekonomiaren bilakaeran eta aurreikuspenak %0,6aren inguruan kokatu dira.

2010eko bigarren seihilabeterako, BEZ zergaren igoerak, automobilak erosteko eman diren diru laguntzen amaierak eta gastu publikoaren murrizketak ekonomiaren jardura baldintzatuko dute, eta hirugarren hiruhilekoan norabide aldaketa aurreratzen da bigarren hiruhilabetearen aldean. Hala ere, analisigileek ez dute uste berriro atzeraldian sartuko denik. Bigarren hiruhilabeteako hazkundearen zati bat kontsumoaren aurrerapenaren ondorioa da eta aurtengo azken zatian maila horiei eustea zaila izango da. Edozein modutan, 2011rako eta kontsumitzaileen eta enpresen baikortasuna finkatzen den heinean, kredituak behar den erraztasuna berreskuratzen duen neurrian, eta finantza arloko doikuntzek sisteman dagoen mesfidantza ezabatzen dutenean, Espainiako ekonomiak hazkundearen norabidea berreskuratuko duela aurreikusten da.

Enpleguak aldakuntza tasa negatiboak jasoko ditu 2010 eta 2011 urteetan. Ceprederen aurreikuspenen arabera, urte horietako lanpostuen galera 474.000 ingurukoa izango da, gehienak 2010ean galduko direlarik. Langabezia tasa altuek Espainiako ekonomia galgatuko dute eta bi urteetan %20,0aren inguruan kokatuko dira.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak

Argitaratu diren koiunturako azken datuekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiarentzako hazkunde aurreikuspenak eguneratu ditu. Aurreikuspen berri hauen arabera, urte arteko hazkunde tasa %0,2 izango da 2010. urtean eta %1,4 datorren urtean. Aurreko hiruhilekoan ezagutzera eman ziren aurreikuspenekiko aldakuntzak, bereziki Eustatek kontu ekonomikoetako datuetan egin duen gaurkotzearen ondorioak dira, baina baita azken hilabeteetan EAEko ingurunerako argitaratu den informazio berriaren ondorioa ere.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2010eko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
BPG	-0,8	0,5	0,5	0,7	0,2	1,1	1,2	1,6	1,8	1,4
Azken kontsumoa	-0,4	1,4	0,5	0,6	0,5	0,8	0,9	1,1	1,2	1,0
Kontsumo pribatua	-0,6	1,4	0,8	0,9	0,6	1,2	1,2	1,4	1,4	1,3
Kontsumo publikoa	0,5	1,4	-0,5	-0,6	0,2	-0,6	-0,3	0,2	0,6	0,0
Kapital eraketa gordina	-9,8	-6,5	-3,8	-2,3	-5,6	-1,5	-0,3	0,5	1,4	0,0
Barne eskariaren ekarpena	-2,7	-0,5	-0,4	0,1	-0,9	0,4	0,4	1,0	1,2	0,8
Kanpo saldoaren ekarpena	1,8	0,9	0,9	0,6	1,1	0,7	0,8	0,6	0,6	0,7
Lehen arloa	-26,6	-4,2	-9,8	-8,8	-12,4	1,9	4,7	10,0	9,1	6,4
Industria	-2,3	0,9	1,8	1,8	0,5	1,9	1,9	2,2	2,4	2,1
Eraikuntza	-5,4	-5,5	-4,7	-3,1	-4,7	-2,8	-2,6	-2,0	-1,5	-2,2
Zerbitzuak	0,5	1,0	0,7	0,7	0,7	1,1	1,2	1,6	1,9	1,4
Balio erantsi gordina	-0,9	0,3	0,4	0,6	0,1	0,9	1,1	1,5	1,8	1,3
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-0,1	2,2	1,0	1,2	1,1	1,5	1,6	1,9	2,1	1,8
BPGren deflatoarea	0,9	1,6	1,8	2,0	1,6	2,1	2,2	2,2	2,4	2,2
Enplegua	-1,8	-0,6	-0,5	-0,3	-0,8	0,1	0,2	0,6	0,8	0,4
Langabezia tasa	8,9	9,1	9,4	9,5	9,2	9,4	9,2	9,2	9,0	9,2



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskariaren ikuspegitik, kontsumo pribatuak eta kapitaleko eraketa gordinak zertxobait hobetuko dituzte hazkunde tasak. Aitzitik, administrazioen kontsumoak behera egingo du, gastu publikoa gutxitzeko gaur egun indarrean dauden politiken ondorioz. Hala ere, barneko

azken kontsumoa 2010ean %0,5 eta 2011n %1,0 haziko dela aurreikusten da. EAEko kontsumitzaileen artean, oraindik ziurgabetasunak dakarren zuhurtzia da nagusi, baina konfiantzak hobera egingo duela eta familien erosteko erabakiak animatuko dituela aurreikusten da. Beste aldetik, kapitaleko eraketa gordinak zertxobait bizkortuko du bere hazkundera, barne eta nazioarteko eskarien susperraldiarengatik. Agregatu horretarako datuek tasa negatibo batean (%-5,6) kokatzen dute oraindik urte arteko aldakuntza 2010ean eta lehen emaitza positiboak 2011n agertuko dira. Hobekuntza horren ondorioz, esportazioak areagotuko dira eta kanpo arloak ekarpen positiboak egingo dizkio BPGren gehikuntzari, bai 2010ean bai 2011n.

Eskaintzari dagokionez, arlo guztiek lortuko dute hazkundera zertxobait hobetzea. Industriak 2010eko lehen seihilekoan jaso zituen lehen tasa positiboak eta aurreikuspenek hazkunde neurritsuak iragartzen dizkiote 2010ean eta 2011n, hurrenez hurren, %0,5 eta %2,1 haziko delarik. Eraikuntzak bakarrik egingo dio ekarpen negatiboa EAEko balio erantsi gordinari aurreikusi den epealdi osoan. Horiek horrela izanda, 2010. urtean %-4,7ko tasa jasoko du eta 2011n, beherakada gutxituko den arren, urteko batez besteko hazkundera %-2,2an kokatuko da. Etxegintzaren doikuntzak aurrera jarraituko du urte hauetan eta obra zibila ez da gai izango narriadura hori konpentsatzeko. Merkatuko zerbitzuek, EAEko ekonomian pisu gehien duen arloa baita, hazkundera areagotuko dute eta hirugarren arlo osoa %0,7ra 2010ean eta %1,4ra 2011n bultzatuko dute. Merkaturatzen ez diren zerbitzuak ere haziko dira, baina tasa apalak jasoko dituzte, administrazio publikoak aurrekontuetan ezarri dituen murrizketen ondorioz.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Lan merkatuaz egin diren aurreikuspenak negatiboak dira oraindik. 2010. urterako batez besteko enplegua %-0,8 jaitsiko dela aurreikusten da, hots, 7.800 lanpostu desagertuko dira urte horretan. 2011. urterako, hazkunde tasa positiboak aurreikusten dira, 2008ko bigarren hiruhilekotik lortuko diren lehenengoak izango dira. Urte osorako langabezia tasak ia ez dira ezer aldatu aurreko hiruhilekoan aurreikusi zirenen aldean eta %9,2an kokatu dira bi urteetarako. BPGren eta enpleguaren hazkunde aurreikuspen horien ondorioz, ekoizkorta-sunaren hazkunde aurreikuspena %1,0an kokatu da 2010ean eta 2011n.

EAErako makroekonomia taulan bildutako aurreikuspenek oinarritzko hipotesi batzuk behar izan dituzte hainbat alorretan, hala nola nazioarteko ekonomien bilakaeraz, datozen urteetarako espero diren prezioez, euroak dolarraren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak etorkizun hurbilean hartuko dituen politikez.

Azken bileretan, Europako Banku Zentralak Eurogunerako interes tasen oinarritzko balioak %1ean utzi ditu, diru bakarra sortu zenetik inoiz izan duen mailarik apalena baita. Neurri horren helburua Europak bere ekonomia suspertu dezala da, prezioak apal igotzen diren testuinguru batean. Gaur egun, ekonomiaren hazkundeaz dauden igurikimenak baikorrak dira, baina aldakuntza tasak ahulak izango direla espero da. Beste aldetik, EBZk oso maila apalak aurreikusten ditu inflaziorako datozen urteetan eta, horren ondorioz, moneta agintarien helburu nagusia, hau da, prezioen indize orokorra, kontrolpean egongo da. Testuinguru horretan eta gaur eguneko interes tasak kontuan hartuta, espero daitekeen mugimendu bakarra goranzkoa izango da, igoera oso txikia izango den arren.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2010eko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
AEB	2,3	1,8	1,2	0,8	1,5	0,9	1,0	1,2	1,2	1,0
Eurogunea	1,1	1,5	1,7	1,9	1,6	1,9	1,7	1,8	1,7	1,8
Espainia	1,1	1,6	2,0	2,3	1,7	2,1	1,9	1,4	1,0	1,6
EAE	1,0	1,5	1,9	2,2	1,6	2,5	2,1	1,6	1,3	1,9

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).


Europako txanponak estatubatuar dolarrek baino sendotasun handiagoa erakusten jarraituko du. Hala ere, AEBetako ekonomiak bere hazkundera finkatuko duen heinean, dolarrek balioa irabaziko du eta euroaren kotizaziora hurbilduko da. Hori horrela izanda, euroaren batez

besteko balioa 2010ean 1,29 dolarretan egongo dela aurreikusten da eta 2011n balio hori 1,19 dolarretara jaitsiko dela.


KPIren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasak

EAE



Eurogunea



Iturria: Eurostat, INE eta Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).